

UDALAREN OSOKO BILKURA

2004ko urtarrilaren 22ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CUIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
IU-EB.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
IU-EB.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

KOLDO BIGURI jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta lauko urtarrilaren hogeita bii arratsaldeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-Udalburua, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** jauna izan da bileraren burua eta idazkariak, **M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA** andreak, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkatetza-Udalburutzak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1. artikuluan ezarritakoa oinarritzat hartuta. Horrenbestez bete egin da eta aipatutako Legearen 21.1.c) artikuluan eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa.

Adierazitako orduan, lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2004. URTERAKO AURREKONTU OROKOR BATERATUA: Udalaren Gobernu Batzordeak 2004ko urtarrilaren 20an egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 16/2004 ebazpena eta udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da ebazpen hori. Hona hemen ebazpena zehatz-mehatz azalduta:

2004ko urtarrilaren 14an Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak emandako 10. irizpena gai honi buruzkoa da:

Ogasun eta Kontu Berezien Informazioa Batzorde honetan, 2003ko abenduaren 17an egindako bileran 2004. urterako aurrekontu orokor bateratuaren proiektua aurkeztu zen. Ondoren aurrekontu hori kapitulutan banatuta agertuko da:

**UDALAREN AURREKONTUA
2004**

DIRU-SARREREN EGOERA-TAULA

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA euroak	2003. URTEA euroak
1	ZUZENEKO ZERGAK	4.158.263,82	3.934.053,22
2	ZEHARKAKO ZERGAK	1.400.000,00	961.619,37
3	TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	3.334.934,00	3.049.318,67
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	12.643.855,16	11.465.918,38
5	ONDAREEN DIRU-SARRERAK	331.532,85	582.882,67
6	INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA	3.015.760,98	1.572.462,79
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	2.821.058,45	2.572.722,33
	GUZTIRA	27.705.405,26	24.138.977,43

GASTUEN EGOERA-TAULA

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA euroak	2003. URTEA euroak
1	LANGILEEN GASTUAK	7.428.834,54	6.708.308,36
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUEN GASTUAK	9.730.386,36	8.141.247,63
3	FINANTZA-GASTUAK	9.152,61	11.244,24
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.133.764,41	4.050.686,10
6	INBERTSIO ERREALAK	6.337.250,23	5.095.462,74
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	6,01	6,01
9	FINANTZA-PASIBOAK	66.011,10	132.022,35
	GUZTIRA	27.705.405,26	24.138.977,43

Soinu-Atadia Fundazio Publikoko Zuzendaritza Batzordeak bere aurrekontua onetsi zuen 2003-11-20an. Ondoren aurrekontu hori kapitulutuan banatuta agertuko da:

**SOINU- ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN AURREKONTUA
2004**

DIRU-SARREREN EGOERA-TAULA

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA euroak	2003. URTEA euroak
3	Tasak, prezioak eta beste gastu batzuk	420.480,00	395.088,00
4	Transferentzia arruntak	964.259,00	893.223,00
8	Finantza-aktiboen aldaketa	6,00	6,00
	DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	1.384.745,00	1.288.317,00

GASTUEN EGOERA-TAULA

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA euroak	2003. URTEA euroak
1	Langileen ordainsariak	1.222.733,00	1.149.071,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak erostea	116.900,00	100.620,00
3	Interesak	6,00	6,00
4	Transferentzia arruntak	21.000,00	20.000,00
6	Inbertsio errealak	24.100,00	18.614,00
8	Finantza-aktiboen aldaketa	6,00	6,00
	GASTUAK, GUZTIRA	1.384.745,00	1.288.317,00

**UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN
AURREKONTUA
2004**

DIRU-SARREREN EGOERA-TAULA

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA euroak	2003. URTEA euroak
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK		
3	Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	127.204,76	139.573,24
4	Transferentzia arruntak	735.676,28	655.442,69
5	Ondareen diru-sarrerak	600,00	600,00
	DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	863.481,04	795.615,93

GASTUEN EGOERA-TAULA

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA euroak	2003. URTEA euroak
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK		
1	Langileen ordainsariak	660.910,48	607.085,02
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak erostea	192.798,24	173.917,85
3	Interesak	405,60	390,00
4	Transferentzia arruntak	3.718,00	148,72
	B) KAPITAL-ERAGIKETAK		
6	Inbertsio errealak	5.500,00	10.505,06
	GASTUAK, GUZTIRA	863.481,04	795.615,93

Ondoren aurrekontu orokor bateratua kapitulutan banatuta agertuko da:

DIRU-SARREREN EGOERA-TAULA

KAPITULUAK	IZENA	ESLEIPENA
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1	Zuzeneko zergak	4.158.263,82
2	Zeharkako zergak	1.400.000
3	Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	3.882.618,76
4	Transferentzia arruntak	13.234.625,91
5	Ondareen diru-sarrerak	332.132,85
	B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6	Inbertsio errealak besterentzea	3.015.760,98
7	Kapital-transferentziak	2.821.058,45
8	Finantza-aktiboen aldaketa	6,00
9	Finantza-pasiboen aldaketa	
	DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	28.844.466,77

GASTUEN EGOERA-TAULA

KAPITULUA K	IZENA	ESLEIPENA
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1	Langileen ordainsariak	9.312.478,02
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak erostea	10.040.084,60

3	Interesak	9.564,21
4	Transferentzia arruntak	3.049.466,60
	B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6	Inbertsio errealak	6.366.850,23
7	Kapital-transferentziak	6,01
8	Finantza-aktiboen aldaketa	6,00
9	Finantza-pasiboen aldaketa	66.011,10
	GASTUAK, GUZTIRA	28.844.466,77

2004ko urtarrilaren 7an amaitu zen zuzenketak aurkezteko epea; egun horretako Informazio Batzordean talde politikoek ez zuten zuzenketarik egin eta proposamenok aurkezteko epea 2004ko urtarrilaren 14ra arte luzatzeko irizpena eman zen.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, adierazi zuen bere talde politikoak aurrekontuari osoko zuzenketa aurkeztuko ziola, ados ez daudelako gastuei loturiko partida batzuekin, eta gainera udalaren osoko bilkuraren bilera egin aurretik zatizko zuzenketak aurkezteko asmoa zutela.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak, azaldu zuen aurkeztu behar zituzten zuzenketak aztertzen zeudela oraindino.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak, adierazi zuen oraindik aztertzen zeuden alegazioak aurkeztuko zituztela.

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo batzordeburu jaunak, adierazi zuen helburua hasierako aurrekontua onestea zela, aurkezturiko zuzenketa batzuk aztertu eta onartzeko aukerari kalterik egin gabe.

Bozketan batzordeburua den EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak eta EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak, Ainara Urbieta Bergara andreak eta Guillermo Mateo Kareaga jaunak aldeko botoa eman zuten, baita EAko Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak ere; horrenbestez, **Ogasun eta Kontu Berezien Informazioa Batzordeak** ondoren adierazitako erabakiak hartu zituen, taldeek aurkeztuko dituzten alegazio eta zuzenketa batzuk aztertzeko aukerari kalterik egin gabe:

1. Onetsi egingo da 2004ko ekitaldiko aurrekontu orokor bateratua; irizpen honetan azaldu da aurrekontua kapituluka laburbildurik eta erakunde autonomotan banatuta.
2. Onetsi egingo dira, ondorioz, aurrekontu horrek aintzat hartzen dituen langileen plantilak.
3. Onetsi egingo da aurrekontua betearazteko udal araua.
4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Araudia onetsi zuen abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikulua xedatutakoari jarraiki, hasieran onetsitako aurrekontua jendaurrean azalduko da hamabost egunez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. Epe horretan interesdunek berori aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkio osoko bilkurari.
5. Aurretik aipatutako hamabost eguneko epe horretan, erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz aurrekontua behin betiko onetsizat hartuko litzateke, eta erreklamaziorik aurkeztuko balitz osoko bilkurak hilabeteko epea izango luke beroriek ebazteko.

EBAZPENA

TOKI GOBERNU BATZAK **berretsi egin zuen** goian agertzen den irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK irizpen hori onesteko **dekretua eman zuen**. Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean gai hau eztabaidatu beharko du, hori guztia Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen Legearen 22.2.e artikuluan xedatutakoaren arabera.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Eztabaidari hasiera emateko, osoko bilkura ia-ia monografikoa izango dela esan du. Halaber, adierazi du eztabaida nolakoa izan beharko litzatekeen azaldu nahiko lukeela, baina jakina, iradokizun egokiak entzungo dituela.

Bi osoko zuzenketa aurkeztu dira; ordena kronologikoari jarraituz, honakoak izan dira: Alderdi Popularrak bat aurkeztu du eta Alderdi Sozialistak beste bat; Ezker Batuak hiru zuzenketa aurkeztu ditu, gastuak aldatzeko, dagozkion diru-sarreraren partidekin; gero, modu globalean, Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak baterako finantzaziorako proposamena duten zuzenketen multzoa aurkeztu dute; hau da, partidetarako ez dago finantzazio bereziko proposamenik.

Horri buruz, esan du eztabaida honela antolatuko duela: lehenengoz, zentzuzkoa denez, osoko bi zuzenketak eztabaidatuko dira aparte, alde batetik Alderdi Popularrak aurkeztutakoa, eta bestetik, Alderdi Sozialistak aurkeztutakoa. Gero, Ezker Batuaren zatizko zuzenketak ikusiko dira, horren ostean Alderdi Popularraren zatizko zuzenketak eta jarraian, Alderdi Sozialistaren zatizko zuzenketak. Azkenik, egokia bada, Ogasuneko Informazio Batzordearen irizpena berresteari buruzko bozketa egingo da, alkateak uste baitu Aurrekontuaren osoko zuzenketek ez dutela aurrera egingo, eta aurrekontua onartuko dela zuzenketen bitartez aurrera egiten ez duen guztian.

Metodologia hori ontzat ematen bada, esan du eztabaida hasiko dela, eta lehenengoz Alderdi Popularraren osoko zuzenketa aurkeztuko dela:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa esan du:

Aurkeztu duten osoko zuzenketaren defentsarekin hasi baino lehen, Leioako 2004ko aurrekontu honi buruzko gogoeta edo iritzi pare bat adierazi nahi dituela esan du. Lehenengoz, adierazi du Aurrekontua 2004. urtean onartuko dela, hori guztia Toki Ogasunak Arautzen dituen Legeak ezarritako epetik kanpo. Lege horrek, 150.2. artikuluan, argi ezartzen du honakoa: *Udalbatzaren osoko bilkurak aurrekontu orokorra onartu beharko du aurrekontua aplikatuko den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen*. Hortaz, argi dago aurrekontua legeak ezarritako epetik kanpo onartuko dela; gainera, aurrekontuaren proiektua abenduaren 27an aurkeztu zen, hau da, abenduaren azken hamabostaldian; jakina, horrela ez zen egon denbora nahikorik 2003an onartzeko, 2003. urtea amaitu baino lehen zuzenketa egokiak egiteko ez baitzegoen denbora nahikorik.

Hori nabarmentzeaz aparte, adierazi du, halaber, oposizioari aurrekontua aztertzeko eman zaion epea gabon egunena izan dela, eta horrek zeharo eragotzi duela hasieran ezarritako egunean zuzenketak aurkeztea.

Bi zehazpen horiek eginda, aurrekontuaren osoko zuzenketa aurkezteko arrazoiak azaltzen hasi da:

Onartzeko aurkeztu den aurrekontua Leioako Udalaren oraingo gobernu-taldea osatzen duten alderdien, PNV eta EAren hitzarmenaren emaitza da. Komenigarria da nabarmentzea euren alderdi politikoak ez duela ezertan ere parte hartu aurrekontua taxutzerakoan.

Leioako Udalaren 2004ko aurrekontuaren ezaugarriarik nabarmenena alderdikoitasuna da, 22.500 €ko partida bat gorde baitu alderdi politiko jakin batzuek bultzaturiko erakunde bat, hau da, Udalbiltza, diruz laguntzeko. PNVk eta EAK bultzaturiko "Erakunde" horrek, azken buruan, Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak emandako oraingo esparru juridiko-politikoak gainditu eta esparru politiko sektarioa ezarri nahi du. Esparru berri horretan, herritarrak eta eskubideak kidetasun ideologikoei lotuta geratuko lirakeke.

Beraz, Udalbiltzarako partida Autonomia Erkidegoa egituratzen duten erakunde demokratikoen aurkako eraso zuzena da. Herriaren dirua erabiltzen da udalerriko herritar guztien gogoarekin inola ere bat ez datorren proiektu bat sustatzeko.

Halaber, udal talde honek gogora ekarri nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenak orain gutxi baliogabetu egin duela Getxoko Udalak 2000. urtean Udalbiltzari emandako dirulaguntza. Epaian argi eta garbi azaltzen da udalaren arreta "ez dela jarri behar herri ekimenaren sektore bakar batean", eta Getxoko Udalari emandako dirulaguntzak "aldaketa politiko alderdikoirako egitarau bat aldarrikatzeko sortutako erakunde bati mesede egiten diola". Halaber, epaiak adierazten du Toki Jaurbidearen Oinarrien Legeak Udalei esleitutako helburuen artean ez dela sartzen proiektu edo egitarau politikoaren sustapen, zabalkunde edo propaganda egitea; horien defentsa egiteko, ordenamendu juridikoak eskuordetzen ditu herriaren gogo sortu edo azaltzeko zeregina duten erakundeak.

Hortaz, uste du Udalbiltzari emandako dirulaguntza bat baliogabetzeko aurrekari bat badagoela, eta hori jakinda ere, Udal honen aurrekontuan horretarako partida hori sartzea are larriagoa da.

Beraz, PNVk eta EAK aurkeztutako aurrekontuan eduki sektario eta alderdikoia duen gastu-proposamena sartzen den bitartean, aurrekontu horretan oraindik ere ez dira kontuan hartzen udalerrri honen egitura eta antolamenduari dagozkion arazo garrantzitsuak, leioar gehienek horiek konpontzea eskatzen duten arren; arazo horiek dira, esaterako, La Avanzada errepidearen inguruan sortutako arazoak, edo auzoen artean nahiz auzoen eta Metro Bilbao-ren geltokien artean komunikazioa hobetzeko garraibide egokiaren gabezia. Udalerrri honen funtsezko bi arazo dira, esan liteke ia-ia endemikoak edo iraupen luzekoak direla; eta berriro ere, aurrekontu honetan Gobernu Taldeak ez dio ekin, gutxienez, horiek konpontzeari.

Horregatik guztiagatik, aurrekontu honetan argi eta garbi alderdikoia eta sektarioa den partida bat dagoelako, eta udalerrri honen oinarrizko arazoaren konponbideari aurre egiten ez zaielako, Alderdi Popularraren Udal taldeak 2004ko aurrekontuaren osoko zuzenketa hau aurkeztu du, aurrekontu hori Toki Gobernu-Batzordeari itzuli eta berriro taxutzeko.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Lehenago adierazi duenez, orain, udal taldeak Alderdi Popularraren osoko zuzenketari buruz mintzatzeko txanda hasiko da.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa esan du:

Lehenago behin edo behin esan duen bezala, osoko bilkurak, erabakiak hartzeko gunea izan beharrean desadostasunen eremua direneko sententzia da, eta besterik gabe, taldeak desadostasun hori eszenaratzeko etortzen direla esan du. Hau da, Batzordeetan erabaki edo adostu ez dena hemen planteatzen da, aldezturik zer esango den jakinda.

Ondoren, adierazi du baietz, benetan aurrekontu kontinuitate dela, EAJ-PNV azken hauteskundeetan eta horien aurrekoetan 12 urtetara begirako gobernu-egitarau batekin aurkeztu zelako, eta azken hauteskundeetan bere historiako emaitzarik onena lortu zuelako. Gobernu-egitarau hori euren aburuz XXI. mendean behar den bezala herriaren arazoak konpondu eta herria bera bideratzeko taxutu da, eta une honetan egitarau hori bera gauzatzen ari dira. Halaber, irudi dezake konponbiderik ekartzen ez dela Alderdi Popularrak funtsezkotzat jotzen

dituen gai batzuetan, alderdi horrek berak planteatzen dituen zatizko zuzenketa batzuetan jasota dagoen bezala. Zuzenketa horiei beste txanda batean erantzungo diela esan du.

Politikaren inguruan leporatzen dizkietenei buruz, PPren bozeramaleak adierazi du aurrekontua epetik kanpo aurkeztu dela; horri buruz EAJ-PNVko bozeramaleak esan du Lege programatikoak daudela eta Lege arau-emaileak ere badaudela, eta dagokigun gai hau lehenengoan eremuan sartzeko dela, eta hortaz, erakunde askok euren aurrekontuak epetik kanpo aurkeztu zituzte; erakunde horietako batzuk Alderdi Sozialistak gobernatzen ditu, eta beste batzuk (Gasteizko Udala eta Arabako Aldundia, besteak beste), Alderdi Popularrak; beraz, osoko bilkura honetan Udalerriaren aurrekontua epetik kanpo aurkeztu dela adierazi den bezala, gauza bera esan daiteke erakunde horiei dagokienez.

Azkenik, adierazi du aurrekontua epetik kanpo aurkeztu dela, baina zuzenketak ere euren epetik kanpo aurkeztu direla.

Partehartzeari eta oposizioak izan duen denborari dagokionez, Ogasuneko buruak Udal honetako Alderdi Politikoei eskatu izan die aurrekontuan sartzeko proposamenak aurkezteko, horrela hasieratik sartuta egon zitezela, gerora egindako zuzenketen bidez izan beharrean.

Udalbiltzaren gaiari dagokionez, adierazi du ez duela errepikatuko zertarako sortu zen, eta ez duela gogora ekarriko orduan zein mesfidantza sortu ziren; uste du Arturo Aldecoak, Udalbiltzan elementu jakin batzuk zeudela esateko, *“el bicho, la bicha o la culebra”*-hitzak erabili zituela. Gizalegez, orduan izandako mesfidantza guztiak ulertzen ditu, eta berak ere mesfidantzarik izan ahal zituen, baina argi utzi nahi du bera Udalbiltzako hainbat lan-batzordetako kide izan dela, eta Udalbiltzan ere gehiengo alderdi batek izaten duenean, bide okerretik doana onbideratu ahal dela, erakunde demokratikoa denez gaiak botoen bidez erabakitzen direlako. Hortaz, boto gehien duenak irabazten du, eta bai orduan, bai orain, EAK eta EAJ-PNVk inork baino boto gehiago dute.

Halaber, adierazi du une honetan hainbat alderdi politikok osatzen duten erakunde horretan elementu susmagarri hori ez dagoela; PPK arrazoi horregatik esaten du erakunde alderdikoi bat diruz laguntzen ari dela, baina berak uste du dirulaguntzak ez direla erakundearentzat, baizik eta Udalbiltzak antolatutako egitarau, ekimen edo ekitaldietarako, bestak beste Iparralde eta Nafarroarekiko lankidetzak eta elkartruke politiketarako; beraz, uste du horiek diruz lagundu behar direla, hirugarren munduarekiko lankidetzak, esaterako Santo Domingo-rekin elkartrukeak burutzea, diruz laguntzen den bezala. Ildo horretatik azaldu du Carlos Iturgaitz edo Leopoldo Barreda buru duen Fundazio batek Arabako Aldundiaren dirulaguntzak jaso zituela ikastaroak antolatzeko eta liburuak argitaratzeko, eta oraindik ere ez duela ikastaro bat bera ere antolatu, ezta liburu bat bera ere argitaratu. Gai hori egunkarietan agertu zen, gero hainbat argudio eman ziren, eta uste duenez, azkenean ez zen dirulaguntzarik eman.

Azkenik, esan du azken batean osoko zuzenketa horrek aurrera egiteko ez dagoela arrazoirik, 28.844.466,77 euroko aurrekontu batetik 24.040,48 euroko dirulaguntza baten aurkako zuzenketa aurkezteari ez baiteritzo egoki.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNV Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Osoko zuzenketari buruz, nahiko arrazoizkoa eta ulergarria da; izan ere, hasieran gehiengo osoa duen Gobernu Talde bat dagoela jakina denean, zentzuzkoa eta aintzat hartzekoa da osoko zuzenketa bat aurkezteak.

Epeari dagokionez, adierazi du arau batzuk programatikoak direla, modu hertsian arau-emaileak ez direla; erreferentziazkoak dira, antolamenduari buruzkoak, kasu honetan bezala, eta kudeaketa hoberako gomendio gisakoak dira. Aurtengo aurrekontua azken hogeitortekoak baino lehenago aurkeztu da, eta hala eta guztiz ere, egia da hoberena aurreko

ekitaldia amaitu baino lehenago onartzea dela. Zalantzarik gabe, hori datorren urtean zuzentzen saiatuko da.

Ez du uste epeei buruz hitz egitea bidezkoa denik, udal aurrekontuaren zuzenketak aurkezteko Diputatuen Kongresuan edo Eusko Legebiltzarrean baino epe luzeagoa izan delako, eta horretarako malgutasun handiagoa izan da.

Udalbitza-Udalbide partidari buruz, jakin nahiko luke Alderdi Popularrak nondik ondorioztatu duen aurreko ekitaldian EAJ-PNVk Udalbiltzari ezkutuko dirulaguntzak eman dizkiola, prentsa-ohar batean agertu zen moduan. Sasiletraduek esaten duten moduan, egitate negatiboak frogatzea oso zaila da, eta egin ez den gauza bat ezin da frogatu.

Uste du Udalbiltza Udalbide *deabruaren semetzat* jotzeko obsesioa dagoela; azken batean, nahi den gauza bakarra mugaz gaindiko lankidetzako hainbat erakundetan egiten dena bezain zentzuzkoa da; hau da, ezin al da Suitzako Yura kantoian egiten den gauza bera egin, Frantzia eta Suitza arteko eskualde bateko bizilagun horiek elkar ezagutzea eta esperientziak elkartrukatzea, eskolaumeen elkartrukeak egitea, hezkuntza eta kultura arloko programetan elkarri laguntzea? Hori ezin al da hemen, herri honetan egin? Espainiako probintzia batean Iberoamerikari lagundu ahal zaio, ez bakarrik garapenerako lankidetzan, baizik eta elkartrukeak egiteko ere bai? Hori egiteari berak zentzuzkoa deritzo.

Partida horren ardatza hori dela azaldu nahi zuen, eta gainera, hori egitea ona dela uste du, eta egin beharreko lehenengo gauza elkar ezagutzea da, hau da, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Nafarroak eta Iparralde deitzen dutenak –Zuberoa, Behenafarroa eta Lapurdi– elkar ezagutzea. Kontua elkar ezagutzea da, esperientziak elkartrukatzea, eskolen arteko trukeak egitea, elkarri laguntzea, eta hori nahi da, besterik gabe. *“Erakunde demokratikoen aurkako eraso”* horren kontua berarentzat errespetagarria den diskurtso batean sartzen da, baina errealitatearekin bat ez datorrela uste du. Gainera, hori ez da aurrekontu honen asmoa; argi esan dute helburua beste bat dela, eta horrela azaldu zuten.

Leioako arazo estrukturaleri aurre egiten ez dietelako salaketari ere erantzun behar diola esan du. Hori ez da egia. EAJ-PNVko bozeramaleak, Eneko Arruebarrena jaunak esan duen bezala, eurek zortzi urte baino gehiagoko proiektu batean hirigintza, gizarte eta kultura arloko integrazioa lortzeko ahalegina eginda, atalez atal lan egiten ari dira, La Avanzada errepideak sortutako arazoak, garraio publikoaren arazoak, auzoen integrazioari buruzkoak, zerbitzu eta ekipamenduei buruzko gaiak barne. Hortaz, uste du oso aurrekontu ona dela, eta lan ildo horrek, frogatu den bezala, Leioa nabarmen aldatzeko eta auzoak integratzeko ere laguntzen duela uste du, eta hiri-sorkuntzako hainbat neurri daude, ez aurrekontuen arloan, baizik eta kudeaketa publikoaren arloan. Horri buruz, esan du Leioan etxebizitza-politkarik ez egoteari buruzko gogoetak entzun dituela, eta horretan eztabaida egon ahal dela esan du, legezkoa delako; etxebizitza-politika A ala B izan behar den, hau da, abian jarri diren neurriek ez daude modu hertsian aurrekontuan sartuta. Azken seihilekoan hiru sustapenetan 212 BOE eraikitzea baimendu duten neurriak ez dira agertu etxebizitza-politika baten partidan, baina horretarako bidea eman duen aurrekontu baten bidez hori lortu da. Eta modu horretan, aurrekontu horrek gizarte-politikan ekarpen nabarmena egiten duela uste du; gizarte-politikan eta hezkuntza-politikan sekulako hazkundeak egon dira; gazteentzako ekipamendu eta instalazioetan hazkunde esponentziala egon da; ekipamenduei dagokienez, zalantzarik gabe Kultur Zentroa oso konpromiso serioa izan da.

Hori guztia esan behar da aurrekontuaren aurkako argudio politikoak eman direlako; hori oposizioak egitea zentzuzkoa da, baina bere ustez, bidezkoa da esatea oso aurrekontu ona dela, Leioan kalitatea eta integrazioa hobetzeko laguntzen duelako, jende askok onartzen duen bezalaxe.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa esan du:

Berak erantzungo dio Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Alkateak bere alderdiaren osoko zuzenketari buruz planteatzen dutenari. Esan da aurrekontu kontinuitate dela, eta horrekin harro daudela esan dute, aurreko urteko hauteskundeetan lortutako emaitzak oinarri hartuta. Bere ustez, batzuetan, aurrekontu batean kontinuitate izatea arriskutsua izan daiteke, eta kasu honetan, Udalerriarentzat aurrekontua kontinuitate izatea ez da positiboa, Udalerriak dituen arazo larri asko konpondu gabe daudelako.

Osoko zuzenketari dagokionez, oinarria ez da Udalbiltzarako partida bakarrik; hori aurrekontuaren aurkako arrazoi nagusia da, baina aurrekontuan hainbat gabezia dago Udalerriaren arazo larriei dagokienez. Hortaz, Udalbiltza osoko zuzenketaren oinarri nagusia da, baina ez bakarra.

Epeei dagokienez, adierazi nahi du normala dela aurrekontua 2003. urtean onartu izanari garrantzia kendu nahi izatea, baina gogora ekarri behar da Herri-kontuen Euskal Epaitegiak 2001. urteko aurrekontuari buruz txostena egin zuela eta Ogasun-batzordean aurkeztu zela; txosten horretan akats bat –bakarra, egia da– zegoela azaldu zen; hain zuzen ere, aurrekontua hurrengo urteko lehen hiruhilekoan aurkeztu zela. Hortaz, bere ustez, horri ez zaio garrantzia kendu behar, garrantzitsua delako, eta Gobernu Taldeak hori aintzat hartu beharko luke. Neurri batean hala egin dutela uste du, eta datozen aurrekontu-ekitaldietan aurrekontua epearen barruan onartuta egon dadin saiatu beharko litzateke.

Beste probintzia batzuetako aurrekontuei buruz, besteak beste Arabakoei buruz, egin diren gogoetei dagokienez, bera ez da horretan sartuko, jorratu beharreko gaia Leioa dela uste baitu.

Nolabait esatearren, aurrekontua epean aurkeztu ez izanaren argudioari indarra kentzeko, aurkako argudiotzat berak espero zuen entzutea oposizioko taldeek euren zuzenketak hasieran ezarritako epean aurkeztu ez zituztela. Bere ustez, biak alderdi diferenteak dira, eta Gobernu Taldeak aurrekontua epearen barruan onartzeko duen ardurak ez du zerikusirik oposizioko taldeek euren zuzenketak behar den unean aurkeztearekin, kontuan hartuta talde horiek gabezia nabarmenak dituztela Gobernu Taldearen aurka egiteko.

Gero, esan da Udalbiltza mugaz gaindiko lankidetzarako beste atal baten moduan aurkeztu dela, eta ia-ia Santo Domingo edo Sahararen kasuetarako dauden partidekin konparatu da. Bere ustez, ez da inor engainatu behar, Udalbiltza ez baita mugaz gaindiko lankidetzarako proiektua; Udalbiltza bera mugaz gaindiko izaera duen lehen Euskal Nazio-erakunde gisa definitzen da. Nazio erakunde gisa definitzen da; beraz, bere helburua lankidetzaren baino zerbait gehiago da. Argi dagoenez, beste erakunde politiko bat sortzen laguntzea du helburu. Hortaz, agi dago bere helburua hori dela, eta gai hori ezin da saihestu.

Oinarrian, aurrekontu osoaren aurkako jarrera defendatu du, eta Udalbiltzaren finantzazioaren aurkako arrazoiei eutsi die. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenaren epaiari buruz esan dena ez da aipatu; epai hori aurrekari larria da, eta Gobernu Talde honek ez du kontuan hartu. Epai argi geratu da Udalen helburua ez dela mota horretako organismoak finantzatzea; jasota dagoen bezala, Udalbiltza finantzatzean lehentasuna ez da kolektibo bateko kideei arreta egitea bizilagun diren neurrian, baizik eta euren herritar izaera politikoagatik, eta arazo hori lantzeko badago hainbat erakunde. Esan behar den gauza bakarra da epai publikoa badagoela, eta larria da Udal honetako Gobernu Taldeak hori kontuan hartu ez izana aurrekontuko partida zuzentzerakoan.

Azkenik, honakoa esan du: orain gutxi prentsa ohar batean azaldu zen Alderdi Popularrak aurreko aurrekontuaren aurka egiteko arrazoi gisa Udalbiltzarentzat ezkutuko dirulaguntza bat egotea eman zuela; bada, horri buruz, ikusi besterik ez dago, aurtengo aurrekontua aurrekoarekin konparatuz gero, aurten Udalbiltza-Udalbide agertzen den partidaren baki berean, 2003koan hor agertzen da udal asoziazionismoko transferentzia izeneko partida, 6.250,52 €rekin. Aurten, aldiz, izena aldatu zaio eta %260ko igoera izan du, hau da,

16.249,48€; partida guztira 22.500 €tan geratu da. Horrek argi erakusten du aurreko aurrekontuan Udalbiltza-Udalbiderentzat partida bat zegoela, eta horregatik, bere ustez, hori aditzera ematea komenigarria da; gainera, hori bera aurreko aurrekontuetan ere gertatu da, baina hori Ogasun Batzordean argituko da, edo berak eskatuko du bertan argitu dadila.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa esan du:

Ogasun Batzordeko buruak esan zion dokumentu informatikoa lengoaia batean eta PPren zuzenketak beste batean eginda dauden sententzioa izan zuela. Eta horregatik ematen du bi alderdiek diskurtso paraleloak dituztela eta ezinezkoa dela zerbaitetan bat etortzea; badirudi entzuten ari garela erdarazko *Xabier, ¿a dónde vas?. Manzanas traigo* hori, eta horrela ondoz ondo jarrai genezake.

Aurrekontua aurkezteko epeari buruz adierazi du hogei egun beranduago aurkeztu dela, baina PPko bozeramaleak onartu behar du Gasteizko Udalak edo Arabako Aldundiak ere epetik kanpo aurkezten dutela.

Akatsak aintzat hartzeari dagokionez, elkarrekikotasuna egon dadila eskatu du, azken aldi honetan PPk osoko bilkuretan esango duena egunkarietan bi egun lehenago irakurtzen ari baita, dena hedabideei ezkutuan jakinarazten baitiote, ez osoko bilkuraren ostean, lehenago baizik. Horri buruz, uste du denek hedabideetara jotzeko eskubidea dutela, baina betiere bilkura egin ondoren. PPk egunkari batean egin duen azken agerraldia osoko zuzenketa hori eta aurreko urteetan Udalbiltzaren jarduerak finantzatu direlako zalaparta iragartzeko izan da. Horri buruz, argitu du beste hainbat aurrekontutan ere udal asoziazionismoarentzat partidak sortu direla Udalbiltza finantzatzeko helburu argiarekin, baina ez dira erabili; horregatik, PPko bozeramaleari galdetu dio ea orain prentsan aitortuko duten oker zeudela, egin ez den zerbait egitea leporatu dietelako, dirulaguntzarik eman ez delako; edo ea PPk aprobetxatuko duen gaurko bilkuran "El Correo" dagoela, mikrofonoaren bidez esateko oker zeudela, edo Ogasun Batzordea bildu arte itxarongo duten, kontrastatzeko. Eta kontrastatu ondoren, ea hedabideetan esango duten Udalbiltzari dirulaguntzarik eman ez zaiola.

Horregatik, Udalbiltzaren gaiarekin horrelako zalaparta sortzen denean, bere ustez, azken batean, aurrekontua kritikatzeko edo osoko zuzenketa aurkezteko arrazoia neurri handi batean norbaitek euskal herria nazioa dela uste izatea bada, orduan arazoa nazio mailakoa da, eta aspertuta dago aberri guztien batasuna hain ukiezina izateaz, aberri guztien batasunari errespetu erabateko eta sakrosaindua zor izateaz, hizkuntzari gauza guztien gainetik errespetu zor izateaz.

Arazoa da erakunde nazionala dela, eta berak uste du Alderdi Popularrak herri honetan, eta beste batzuetan ere bai, ebatzi gabe arazo batzuk dituela, besteak beste onartzea euskal herria herri bat dela, eta eskubidea duela lurraldeen artean lankidetzaren politikak egituratzeko, estatu diferenteetako lurraldeen artean bada ere; eta hori ez badu onartzen, hala eta guztiz ere, esan dezala.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Ez zuen Ogasun Batzordearen hurrengo bilerara arte itxaron nahi azalpena emateko, oraintxe bertan eman nahi baitzuen, eta tamalgarria da azalpenak alde aurretik eskatu ez izana, berak uste baitu harremanetan modu onei eutsi behar zaiela, eta orain arte harreman horiek bikainak izan dira. EAJ-PNVk Udalbiltzari ezkutuko dirulaguntza eman diola esatea oso latza da, erakunde jakin bati ezkutuko laguntza ematea da.

Lehenago adierazi du egitate negatiboak frogatzea zaila dela, eta Udalbiltzari ez zaiola dirulaguntzarik eman. Udal honetan ez da aurkituko Udalbiltzari egindako inolako transferentziarik, horrelakorik egon ez delako. 2003ko aurrekontuan partida hori ez zen gauzatu,

eta 2002. urtean guztiz gauzatu zen udal asoziazionismoa lantzeko. Izan ere, badago Leioaren antz handia duen udalerrri bat, askoz handiagoa, baina egitura aldetik oso antzekoa. Bertako kultur zentroan bisita egin zen, eta kontua da hangoa eta hemengoa arkitekto berberak egin dituztela; horregatik, herri biak anaitzeko, Sant Cugat del Valles udalerriarekin elkartrukea antolatu zen. Horren bidez, Sant Cugat del Valles-eko Castelletts izenekoak Leioara etorri ziren jaietan, kultur etxe bien laguntzaz. Halaber, adierazi du iaz aurreikusita zegoela Leioako udalaren ordezkari batzuk herri hartara joan zitezela San Pedro jaietan, eta hori antolatzea ezinezkoa izan zenez, partida hori gauzatu gabe geratu zen.

Amaitzeko, PPko bozeramaleari, Xabier Olabarrieta jaunari esan dio gogaikarria iruditzen zaiola baieztapen faltsu eta bidegabe hori egin izana; ez dio eskatuko atzera egin dezala, ez baitu atzera egingo; ematen du giro politikoaren ezaugarri bat dela PPK prentsa-oharrak ateratzea gaiak Batzordera edo Osoko bilkurara eraman aurretik.

Eztabaidaren ondoren, Alderdi Popularrak proposatutako osoko zuzenketa bozkatu da eta honako hau izan da emaitza:

PP TALDEAK PROPOSATUTAKO OSOKO ZUZENKETAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan **zuzenketaren aurkako hamahiru boto** izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak, IU-EBko bi zinegotzienak eta EAko zinegotziarena; **aldeko botak, berriz, lau** izan dira, PPko lau zinegotzienak. Abstentzioak bi izan dira, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak. Ondorioz, PP udal taldeak proposatu duen 2004. urterako aurrekontu orokor bateratuaren osoko zuzenketa **baztertu egin du** osoko bilkurak.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Ondoren Alderdi Sozialistak aurkeztutako aurrekontuen osoko zuzenketaren azalpen, eztabaida eta bozketa egingo da.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa esan du:

Jarraian, bere alderdiak aurkeztutako zuzenketa irakurri du. Hitzez hitz kopiatuta, honako dio zuzenketak:

“Udal aurrekontua, Udalak denon baliabideak kudeatzeko duen biderik garrantzitsuena izateaz gain, erdietsi nahi den herriaren definizio argia da. Bertan lehenetsunak zehazten dira, konpromisoak planteatzen dira; azken batean, eta gure kasuan, alderdi politiko bakoitzak gizartean, hezkuntzan, hirigintzan, etab. nahi duen Leioa agertzen da. Aurrekontua taxutzean ideiak, proiektuak, eta arlo publikoa ulertzeko moduak kontrastatzen dira, proposamen guztien artean denok nahi dugun Leioa lortzeko. Hala ere, hor dago geure lehenengo desadostasuna: udal aurrekontuaren aurreproiektua berandu aurkeztu da, legezko epetik kanpo, erdian oporraldia dagoela, eta gobernu taldea osatzen duten talde politikoek baino ez dute hori taxutu edo horren berri izan. Beraz, gobernu taldearen aurreproiektua da, eta horregatik aurrekontua itzultzeko eskatzea besterik ez zaigu geratzen, lanerako beste epe bat zabaltzeko, eta epe horretan osoko bilkuran aurrekontuaren aurreproiektu adostua aurkezteko; aurreproiektu adostu horretan Leioa global eta anitzaren, denon eta denontzakoaren ideia jasota egon behar da.

Ezin da nazionalismotik edo nazionalismoarentzat gobernatu, eta ildo horretatik, onartezintzat jotzen dugu Udalbiltza-Udalbideri emandako aurrekontu-partida. Errealitate politiko eta juridiko hori ez da existitzen, nazionalismoaren errealitatea da, nazionalismoaren interesak baino ez ditu ordezkatzeko, eta guk onartzen ez dugun herri kontzeptu baten ondorio da. Udal aurrekontuen bidez udalerraren arazo eta beharriari aurre egin behar zaie, eta gure ustez, nazio eraikuntza ez da herritarren eguneroko kezka nagusia.

Arrazoi bi horiek abiapuntu hartuta, aurrekontua itzultzea eskatu nahi dugu, eta falta diren alderdiak planteatu nahi ditugu, herritarren arazoak konpontzeko oinarritzkoak direlakoan:

1. **Gizarte-politikan gogoa falta da:** Talde Sozialistaren ezaugarrietako bat alderdi onak aintzat hartzea da, eta hain zuzen ere, zenbaitetan asmatzen da, baina gure ustez, aurrekontu-aurreproiektu honek ez du agertzen ongizate-politika aurrerakoi baten aldeko apustu gogotsu eta irmorik. Oraindik ere gizarte-larrialdietarako Laguntza osoari ekiteko aurrekontua falta da; ez du planteatzen partida nahikorik etxez etxeko laguntza zerbitzua berriro antolatzeke, eta itxaron-zerrenda ontzat ematen du; dirulaguntza, laguntza, etab.ez aparte ez du planteatzen gizarte lanerako beste aurrekontu-partidarik. Beraz, gizarte arloan aurrekontu-aurreproiektu kontinuista da, ez du argi eta gogoz egiten gizartetik bertatik gizartea bera aldatzearen alde.
2. **Gizon eta emakumeen aukera-berdintasunerako emakumeen aldeko politika falta da.** Aukera berdintasunari buruzko planerako aurrekontu-partida bat dagoen arren, gure ustez Leioa nabarmen atzeratua dago, eta horretarako partida ez da nahikoa gaiari seriotasunez eta helburuak argi eta ebaluatzeke moduan ekiteko. Bestalde, aurrekontuak ez dago proiektu berritzaile, eta dauden proiektuak, esaterako aholkularitza juridikoa eta aholkularitza psikologikoa, geldirik daude. Beharrezkoa eta premiazkoa da genero-indarkeriari aurre hartzeke eta arreta egiteke proiektu bat oso-osorik aurkeztu eta aurrekontuan agertzea, beste administrazioen laguntzaz.
3. **Gizarte ongizate, kultura, eta hirigintza sailekin batera irakaskuntza publikoaren alde jardungo duen eta horrekin aurrekontu soziala ezarriko duen hezkuntza saila falta da.**
4. **Toki-erakundeak ez du etxebizitza-politikaren alde egiten.** Udal etxebizitzaren ardura Eusko Jaurlaritzako etxebizitza sailari bakarrik uzten zaio, eta alokairuko etxebizitzarako edo gizarte-larrialdietako etxebizitza erosteko ez da dirurik zuzentzen.
5. **Leioa unibertsitate-herria izatearen aldeko apustua falta da.** Unibertsitateetik hurbil eta unibertsitatearekin paraleloan sortutako azpiegitura eta egiturak dituen herria taxutzen bada, geure herria diferentea izango da, unibertsitate-herria, horrek dakartzan abantaila guztiekin.
6. **Leioa kohesionatu eta egituratu gabe dago.** Talde guztiok askotan onartu dugu Leioak auzo barreiatuak dituela, eta herriaren kohesioa lortzeko funtsezkoa da kalitatezko garraio publikoa. Tranbiaren beharrezko ohartu gara eta horren alde egiten dugu, baina horretaz gain, gure ustez, aurrekontuak epe labur nahiz luzeko irtenbideak barne hartu beharko lituzke (herri arteko garraioa hobetzea, udal zerbitzuak benetan deszentralizatzea, auzo-zinegotzien egitura sortzea, etab.)
7. **Toki Agenda 21.** Toki Agenda 21-en helburua honakoa da: “udalerrien garapen iraunkorra sustatzea, hau da, gaur egungo bizilagunen beharrezkoak betetzen dituen, etorkizuneko belaunaldiak eurenak betetzeko ahalmena kolokan jarri gabe”. Gainera, Toki Agenda 21-ek “udalerrian garapen iraunkorra erdiesteko helburuz herritarren partehartzea eskatzen duen lan-metodoa” defendatzen du. Orduan, geure aburuz, gai horri zuzendutako partidak argi erakusten du Gobernu Taldeak konpromiso urria duela Toki Agenda 21 horrekin. Udalerria Toki Agenda 21-eko egitarauak abian jartzeko berandutu da, herriaren beharrezko zehatzak aztertu behar dira, azterketa horietatik

sortzen diren ekimenen tamaina bera handia da, eta horri guztiari ezin zaio ekin hain kopuru eskasekin.

8. **Udalean oposizioko taldeek duten garrantzia.** Udal Gobernuko Organoei zuzendutako partidaren igoera kontuan hartuz – %56 –, ondorioztatu ahal dugu Udaleko gaien konplexutasunak hirugarren pertsona bat liberatzera behartu duela. Arrazoibide hori oposizioaren lanera –hori ere lan konplexua izango da– hedatzen badugu, ondorio tamalgarri batera helduko gara: Gobernu Taldean ez dauden alderdien lana izugarri oztopatzen da, eta alderdi horiei euren lana egiteko baliabideak, batez ere giza baliabideak, kendu egiten zaizkie. Aurrekontuaren atal horretan, batzuentzat beharrezkoa dena ez da guztientzat beharrezkoa.
9. **Hirigintza Garapena.** Udalerriko hirigintza garapenari bultzada nabaria eman zaio. Aurreko agintaldian eta oraingoan lehenasunezko zenbait proiektu abian jarri edo onartu da. Hala ere, garapen horren hainbat alderdi zehatz alde batera utzi dira; zehazki, La Avanzada errepideak ingurumenean duen eragin larriaz eta horretarako konponbiderik ezaz ari gara. Hau ez da errepide horrek sortutako kalteak zerrendatzeko lekua, baina nabarmendu behar da ez dela partidarik zuzendu udalak har ditzakeen konponbideak aztertzeko – eta ezin da aitzakiatzat jarri Foru Aldundia; erakunde horrek bere eskumenak ditu bide zehatz batzuetan, baina Udalak bere alternatibak ere planteatu behar ditu – eta udalak bere eskumenen barruan jardun behar du udalerriko bizilagunen arazoak konpontzeko.

Esandako horregatik guztiagatik, Talde sozialistak aurrekontuaren aurreproiektua itzultzeko eskaerari eutsi nahi dio, eta Gobernu Taldearen esanetara gelditzen da guztion adostasuna izango duen aurreproiektuan lan egiteko.”

Jarraian adierazi duenez, zeharka esan da PSE-EE-PSOEK eta Alderdi Popularrak aurkeztutako zuzenketak antzekoak zirela. Hala ere, berak uste du ez dutela zerikusirik, Euskadi osoan, baina batik bat Leioan, udal talde horrek askotan argi eta garbi utzi baitu ez dela Alderdi Popularra ezta Eusko Alderdi Jeltzalea ere, Alderdi Sozialista baizik, eta gainera, herriaren gunea dela uste du.

Oposizioko gainerako talde politikoek bezala, aurrekontuaren aurreproiektuaren berri izan dute berau itxita eta gobernu taldeko talde politikoek adostuta zegoenean.

EAJ-PNVko bozeramaleak, Eneko Arruebarrena jaunak esan du Ogasun Batzordeko buruak, Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, zenbait aldiz proposamenak eskatu dituela; horri buruz, zalantzarik gabe zuzenketa bat onartzeko borondate pertsonal nahiz politikoa du, baina kontua da aurrekontuaren aurreproiektuaz ari direla. Eurek denok ordezkatzan dituen aurrekontu-aurreproiektua eraman nahi badute, ezin dute hitz egin aurreproiektua eginda dagoenean, lehenago baizik, beste hainbat aldiz egin duten bezala.

Aurrekontua berandu aurkeztu dela esan du, baina egia ere bada beste hainbat alditan baino lehenago aurkeztu dela, behar den epean aurkezten ez bada ere. Jarraian, Alkate jaunari esan dio ez dela bidezkoa esatea oposizioko taldeek zuzenketak aurkezteko denbora nahikoa egon dela eta zuzenketok berandu aurkeztu direla, Gobernu Taldeak urtebete baitu aurrekontua aurkezteko, eta horretaz gain Udalaren baliabide guztiak, Teknikari guztiak, eta hiru zinegotzi liberatu ere baititu; oposizioko jaun-andreek, aldiz, ez dute baliabiderik, hilabete baino ez dute, eta hori ere oporraldia tartean dela. Horrekin lan egiteko astia dagoen arren, opor egunak dira, eta herri honetan, bizi den egoera kontuan hartuta, oporrak ere baliatu behar dira.

Jarraian, bere Alderdiak aurkeztutako osoko zuzenketan azaltzen den bezala, gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuaren aurreproiektua talde horretako kide diren alderdien

interesen araberakoa da, eta horren adibide garbia da Udalbiltza- Udalbideri zuzendutako aurrekontu-partida. Osoko Bilkura honetan esan da Udalbiltza Iparralde, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko jendea biltzen duen elkarte dela, eta PSE-EE-PSOeko zinegotziak, Nieves Hurtadok esan duen bezala, ia-ia GKE bat dela; baina ez da hori, eta berak ez luke horren kontrako botorik emango. Udalbiltzari buruz, bere garaian, bere taldeak esan zuen toki-erakundeek badutela asoziazionismorako baliabide bat, EUDEL izenekoa. Horrek udalen interesak ordezkatzeko ditu, eta Euskal Autonomia Estatututik sortutako antolaera juridiko eta politikoari jaramon egiten dio. Eta, PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo jaunak esan zuen bezala, zorionez, haiek erakunde horren Lehendakariarekin eta Lehendakariordearekin pozik daude.

EAJ-PNVren bozeramaleak esan du osoko bilkuretara desadostasunekin etortzen direla; horri buruz berak esan du osoko bilkuretan gai horri buruzko iritzia eman duela, eta bere ustez, taldearen ibilbide politikoan nahiz bere ibilbidean, argi geratu da haiek ez direla etortzen desadostasunak adierazteko. Nolanahi ere, berriro esan du prest daudela ahalik eta denbora laburrenean gutxi batzuen gabe denona izango den aurrekontuaren aurreproiektu serioa negoziatzeko, baina aurreproiektu hori ez da itxita eman behar, soilik Ogasun Batzordeburuaren zuzenketaren bat onartzeko.

Aurrekontua itzultzea eskatzeko osoko zuzenketan, sozialistek aurrekontuei buruzko akordio batera heltzeko oinarriak ezartzen dituzte. Horri buruz adierazi du lasaitasunez egindako zuzenketa dela, politika horrela egin behar baita; gainera, zuzenketan agertzen da sozialistek Leioari buruz duten kontzeptua, hain zuzen ere azken udal hauteskundeetara eraman duten kontzeptua; eta EAJ-PNVk bezain emaitza ona izan ez badute ere, euren emaitza ere ona izan zen.

Euren ustez, aurrekontuaren aurreproiektuaren ezaugarri nabarmenena da kontinuitate dela. Eta kontinuitate izatea txarra ez delako baieztapenari buruz, berak esaten du hain zuzen ere txarra ez dela, eta ez litzatekeela txarra izango aurreko aurrekontua ona izan balitz, baina aurrekoa ontzat eman ez zutenek, kasu honetan kontinuitate izatea ere ez dute ontzat jotzen. Horregatik, aurrekontu hau kontinuitate da arazoetako asko konpontzeari dagokionez, eta ez du konponbide edo erronka berririk ekartzen. Aurrekontua, nahi den etorkizuneko Leioaren argazkia da, ez besterik, eta argazki honetan soberan dago aurpegiren bat, euren ustez Udalbiltzaren aurpegia, jakina; beste aurpegi asko falta dira, eta beste asko eta askori makillajea jarri behar zaie. Osoko zuzenketari dagokionez, aipatu du gizarte politikan gogoia falta dela, eta benetan, dauden zenbakiak eta egin behar diren arren ez dauden zenbakiak ikusita, datu hori objektibo bihurtzen da.

Aurrekontuaren aurreproiektuan berriro ere Eusko Jaurlaritzak gizarte larrialdiko laguntzei buruz duen politika okerra aintzat hartu dela esan du; gainera, Udaleko gizarte larrialdiei aurre egiteko, legearen arabera eman behar denaren erdia ematea ontzat eman da. Eurentzat, hori ez da gauza berria, bere garaian ere Udal guztietan gai horrekin zuzenketa bat planteatu zuten; baina bere ustez, egoera bati gizarte larrialdi deitzen zaio ageri-agerian dagoelako, eta kasu honetan oso gai larriez ari gara. Ikustea besterik ez dago laguntzak nora joaten diren, eta horrenbestez, okerra iruditzen zaio Eusko Jaurlaritzari arrazoia ematea, honek laguntzen %100 erabiltzeari uko egiten dionean eta oinarritzko errenta bezalaxe –hau da, modu mekanikoan– erabiltzen duenean.

Gainera, gizarte-zerbitzuetan izapidetzen diren larrialdi-laguntzak gehienbat zein kontzeptutara zuzentzen diren begiratzen bada, ikusiko da alokairuak ordaintzeko izaten dela. Hortaz, zentzuzkoena izango litzateke aurrekontuan alokairuko etxebizitzaren aldeko politikan inplikatzeko beharra agertzea. Alderdi Sozialistak etxebizitza-politikari buruz aurkeztutako zuzenketaz Alkate jaunak esan duenari dagokionez, beharbada zuzenketa ez da idatzi modurik onenean, baina egia da hirigintza-planen bitartez etxebizitza sozialak egotea ahalbidetzen dela. Eurek esan nahi dutena zera da: Udalak bere gain hartzen baditu ditu alokairuko etxebizitzak, orduan, beharbada, diru gehiagorik gabe larrialdi-laguntzen %100 eman ahalko litzateke, gizarte-

laguntza gehienak, %80 edo %90, edo gutxien jota %70, alokairua ordaintzeko ematen ari baitira. Eta udalerrri honetan, alokairuan ez da 80, 90 edo 100.000 pezeta baino gutxiago ordaintzen; beraz, horrekin arazo larri bat konponduko litzateke.

Bestalde, ikusi du ez zaiola konponbiderik bilatu hainbat fenomeno berriri, besteak beste inmigrazioari, udalerrri honetan ere horren ondorioz gizarte-larrialdiak ugaritu egin baitira. Ematen du fenomeno horrek leioarrekin zerikusirik ez duela. Atseginenez ikusiko zuten diru-sarreraren atalean Eusko Jaurlaritzak inmigrazioko teknikari bat kontratatzeke eta fenomeno horren behatoki bat taxutzeko ematen duen dirulaguntza agertzea; izan ere, hori gastuen atalean agertuko litzateke udal baliabiderik erabili gabe. Zuzenketa hori egitea aurreikusita zuen, baina ezin izan du egin, teknikariaren dirulaguntzari buruzko datua ez baitute jakin Osoko Bilkura egin den eguneko goizera arte, baina berak entzun duenez, Espainiako beste aldeetako Alkate askok esan du bizilagun inmigranteen ehunekoa %4 zela, eta hurrengo urtean %16 zirela; hortaz, uste du hainbat gairi dagokionez prebentzioa oso garrantzitsua dela. Bestalde, Leioan inmigrazioaren fenomenoak gero eta garrantzitsuagoa izaten hasi da, eta gainera, bere ustez, beste Administrazio bat, kasu honetan Eusko Jaurlaritza, baliabideak jartzen ari da inmigrazioko teknikariaren kontratazioa diruz laguntzeko.

Halaber, adierazi du gizarte arloan gogo handiagoz ekin behar zaiola, esate baterako, etxez etxeko laguntzari, kontzeptu honetan dagoen partidak ez baitu itxaron-zerrendaren arazoa konpontzen. Hortaz, norbait hiltzen den arte itxaroten da horren ordez beste bat jartzeko, edo behintzat, hori gertatzen ari da aurten, berak dituen datuei erreparatu. Horregatik, zatizko zuzenketetan itxaron-zerrendak konpontzeko zerbait gehiago planteatzen du, baina nolahi ere, etxez etxeko laguntza berrantolatzea planteatzen du, gai gehiagori heltzeko eta beste modu batean planteatzeko. Gauza bera adierazi zuen adinekoen aisialdiari buruz, erretiratuak ondo hornituta baitaude. Zehazki, Errekaldeko jubilatuen etxea ondo baino hobeto hornituta dago, oso azpiegitura ona du eta dinamizazioari emandako orduak oso gutxi dira. Halaber, zuzenketan aholkularitza psikologikoa moteldu egi dela aipatu du; gai hori askotan eztabaidatu da Batzordean, eta osoko bilkura honetara berriro ere ekarri du. Azkenik, adierazi du zuzenketan gizon eta emakumeen arteko berdintasun politikak aipatzen direla. Atal honetan garrantzitsua iruditzen zaio aipatzea osoko bilkurak zenbait mozio onartu duela emakumeei buruz; horietan adierazi zutenenez, konponbidea horretarako langileak, programak eta aurrekontuak baliatzea zen, eta berak uste du aurrekontu honetan ez direla planteamendu horiek kontuan hartzen. Espero zuen oraingoan aukera berdintasunerako plan bat baliatuko zela aurrekontu egokiarekin, adibidez bederatzi mila eta seiehun euroekin, plan on bati ekiteko.

Osoko zuzenketan adierazi da gizarte ongizatean, kulturean, hezkuntzan eta ingurumenean gogoia falta dela; izan ere, nola zehaztu ote daiteke Toki Agenda 21-ean oinarrituta hamabi mila euroko kopuru handia baliatzen duen ingurumen politika bat, eta bien bitartean, nola zehaztu ote daiteke bere udalerrian Euskal Herriko Unibertsitatearen kanpuz handiena dagoela inondik ere kontuan hartzen ez duen kultura-politika bat? Barregarria iruditzen zaio Euskal Herriko Unibertsitateari sei mila euroko hitzarmena baizik ez eskaintzea, eta bere ustez, Leioa unibertsitate-herria izango bada, gauza gehiago behar dira.

Hirigintzan eta inbertsioen arloan, aurrerakadak eta alde onak egon dira, baina oraingoan ere ez zaie heldu epe laburrean garraioak dituen arazoei, esate baterako La Avanzada ixtea eta Iberdrolaren azpiestazioa tokiz aldatzea.

Azkenik, adierazi du gobernu organoen ordainsariak ehuneko berrogeita hamar baino gehiago igotzea planteatzen dela, beste pertsona bat liberatuko da-eta. Horren beharrari buruz ez dute eztabaidarik egingo, baina uste du oraindik konpondu gabe dagoela oposizioaren egoera. Hortaz, adierazi du demokrazian oposizioak eta gobernuak zeregin diferenteak dituztela, baina balio berbera dutela.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Aurrekontu bat taxutzen denean, nominalismoan erortzeko tentazioa dago, baina hori ez da zuzena, aurrekontua osotasunean kontuan hartu behar baita. Bozeramale Sozialistak esan du Toki Agenda 21-ek gogo falta duela, dagokion partidari 12.000 € soilik aurreikusi direlako; horri buruz, Alkateak honako zehazpena egin du: hori baieztatzea bidegabea da, benetako Toki Agenda 21 bat ez baita gauzatzen adierazitako partidarekin. Aurrekontuan jasota dagoen guztia baliatu behar du, eta beste gauza bat da aipatutako partidak dioena, hori egitaraua abiaraztean aholkua emango duen taldearen kontratazioari soilik dagokio-eta. Hala ere, Toki Agenda 21 ez da amaitzen partida honetan jasota dagoenarekin, horretaz gain beste partida batzuk daude lotura-poltsen bitartez elkarren artean komunikatuta.

Halaber, adierazi du eskerrak eman behar dizkiola Alderdi Sozialistari, aurreko lau urteetan aurrekonturako ekarpenetan egindako ahaleginagatik, aurrekontu honek sozialisten ekarpen ugari baitu. Gobernu honek, gehiengo osoa izan arren, ez ditu ekarpen horiek ezabatu, eta horri buruz esan behar du gizarte politikan gogoia ez ezik gogo handi-handia dagoela, eta gizarte arloaren hazkunde globala %10ekoa izan den arren, partidak aztertuta ikusten da, esate baterako, hirugarren pertsonen arreta %21,6 igo dela, etxez etxeko laguntza %14,3 igo dela; gizarte-larrialdia %20 igo dela; drogamenpekotasunen prebentzioa %34,8 igo dela; Sanitatea %126,9 igo dela; emakumeari buruzko jardueren atala %33,7 igo dela; eskoletan egiten diren eskolaz kanpoko jardueren atala %86,5 igo dela; euskara zerbitzua %24,5 igo dela; esku-hartze familiarra %37,2 igo dela; gainera, lehenago ez zegoen gazteentzako programa bat sortu da, eta garapenerako lankidetzak %17,3 igo da, aurrekontu globalaren %0,7rekin berdintzeko; horrela, bere garaian hartutako konpromisoari eutsi zaio, Ezker Batuak azken aurrekontuan planteatu zuen bezala.

Jarraian, adierazi du aurrekontu honek helburu sozial argia duela. Beste gauza bat da oposizioak gutxiegi dela esatea, logikoa baita. Horri buruz esan du etxebizitza politikan gogoia badagoela, eta hain zuzen ere, Etxebizitza Sailburuak, Leioan egon zenean, udalerrri hau Euskadin etxebizitza politikan aurreratuenetarikoa dela esan zuen, eta Aurrekontuan, etxebizitzaren erosteta izena duen partidari ez badago ere, etxebizitzak erosteko baliabideak daude, baina horretaz hitz egingo du gizarte arloko zuzenketak jorratzen direnean.

Azkenik, Leioa unibertsitateaz adierazi denari buruz esan du Unibertsitatea eta Leioa elkarrekin integratzeko ahalegina, azken hori hiria den aldetik, ez dela bakarrik partida baten kontua. Proiektu horri partida gehiago daude lotuta, eta bozeramale sozialistak ondo daki azken urteotan ahalegina egin dela, eta alde bietan oraindik ahalegina egiten jarraitu behar dutela.

Eako Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa esan du:

Alderdi Sozialistaren jarrera eskertu nahi izan du, gauza askotan bat etortzen direlako, eta horiek ekarpen onak direlako. Toki Agenda 21-i buruz, ordura arte ez da aurrekonturik egon, baina honako hau onartzen bada, abian jarriko dira Toki Agendari dagozkion gai batzuk. Unibertsitatearen gaiari buruz, hori ere eskertu egin du, baliatu den proiektu berri horrekin aukera gehiago egongo baitira lankidetzaren bidez Unibertsitateko Leioa gauzatzeko.

Halaber, Gizarte Ekintzari dagokionez, eskerrak eman ditu, baina hori gai horren partidetan egin beharko dute, aurrekontu globala kontuan hartuta, mantentzea eta garapen iraunkorra Gizarte Ekintzari, Hirigintzari, etab. i baitagokio.

Eskura dauden baliabideei dagokienez, urriak direla esan du, eta ahal den neurrian beste zenbait Udaletako oposizio-taldeekin konparatu ahal direla esan du.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa esan du:

Osoko bilkura honetan erabili den tonua eskertuz hasi nahi duela esan du, bereziki Alkate jaunari eskertuz, Talde Sozialistari buruz eta egin duten lanari buruz hitz egitean izan duen errespetuarengatik.

Jarraian Alkate jaunari esan dio ez dela egia zuzenketa hau egin behar izan dutelako egin dutenik; ez da egia gehiengo absolutua eskuratzen duen hauteskunde-koalizioa dagoelako aurkeztu dutela osoko zuzenketa, eta beraiei ezetz esatea dagokie, ez da horregatik izan. Asmo txikiagoko aurrekontu bati aldeko botoa eman izanari buruz adierazitakoa dela eta, beste garai batzuk izan zirelako jokatu zen horrela, hain zuzen ere, Fernando Buesa hil eta biharamunean egin baitzen bozketa; horren inguruan adierazi nahi du egoera politikoa gaur egungoa baino askoz okerragoa zela eta, noski, aurrekontua asmo txikiagokoa zen, 0 pezeta erabiltzen baitziren Emakumearen kapitulurako. Baina garai hartan, bere ustez, ahaleginak beste hainbat egoerengatik egin behar ziren eta egoera politikoarekin haustea zen helburua; izan ere, orain oker badago, garai hartan ez zen hobe eta, berez, aurrekontu horietan eta garai hartan, *Leioako espiritua* agertzen zela uste du. Berak horren falta sumatu du azkeneko osoko bilkuran eta, dirudenez, berriro dabil bideratzen.

Jarraian, Alkate jaunak aurrekontu hau asmo handikoa izan beharrean asmo oso handikoa dela esan duenez (nabarmen handitu diren gizarte izaerako zenbait partida aipatu ditu), handitze hori gaur egun dagoen egoera bideratzeko egin dela adierazi du, baina ez etxetzeko laguntza ezberdina izango dela edo beste era batean antolatuko dela; besteentzako laguntza asmo handitu dela, ba noski handitu dela, bestea iristen ez delako. Beraz, zerbitzuaren maila egokia mantendu nahi bada, ez dago beste irtenbiderik, beste alde batetik eman beharko da. Partidak handitu badira, ematen ari dena nahikoa ez delako da, eta ez beste gauza batzuk egitea proposatu delako. Horren adibidetzat, honakoa adierazi zuen: Gizarte Ongizate Sailak beste administrari laguntzaile bat kontratatu du, baina duela urte batzuk zena da, eta Leioako gizarte-arazoak ez dira arazo berak, edo behintzat hori uste du berak; bada, sail horrek asmo handia izan ahal izateko, berrantolatu egin behar du, eta beste era bateko gizarte-lana planteatu behar du, orain egiten ari direna, funtsean, familiako esku-hartzean, diru-laguntzak, laguntzak, etab. kudeatuz.

Toki Agenda 21 dela eta, bi milioi pezetak Ingurumeneko talde teknikoa kontratatzeke direnez, adierazi behar da Foru Aldundiak ere Ingurumeneko talde teknikoa kontratatzeke diru-laguntza ematen duela; beraz, ez daki oso ondo zertan ari diren pentsatzen, beren ustez, Toki Agenda 21 izendatzea eta diru hori ematea nahiko barregarria baita; hala ere, badakite horiekin lotuta dauden eta erabil daitezkeen partidak daudena, baina gai honetan seriotasunez jokatu nahi da, eta Angel Trigueros jaunari entzunez gai honetan seriotasunez jokatu nahi dela sinistu behar da, nahiz eta gobernuaren aurrekontu-ituna dela ematen du, beste ezer baino gehiago.

Bukatzeko, oposizioaren errekurtsoen gaiari behingoz seriotasunez ekiteko eskatu du; izan ere, behin baino gehiagotan planteatu den bezala, justizia dela uste du, eta garai berriekin eta politika egiteko modu berriekin zerikusia duela uste du; arrazoi horiek guztiak, Udalbiltza gaiarekin batera, izan dira osoko zuzenketa aurkeztea eragin diena, eta ez da aurkeztu behar delako bakarrik aurkeztu; izan ere, horrela izango balitz, ez genuke lan hori guztia egingo, bere ustez oso serioa baita.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa esan du:

Adierazi duenez, osoko bilkurak Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak aurkeztutako osoko zuzenketa gainera eztabaida batera egitea proposatu baldin badu, testua bera interpretatzean egindako akats baten ondorioz izan da, hau da, osoko zuzenketa lehenengo paragrafoan agertzen den arrazoiketan, honakoa da esaldi adierazgarriena "*Hala ere, hor dago geure lehenengo desadostasuna: udal aurrekontuaren aurreproiektua berandu*

aurkeztu da, legezko epetik kanpo, erdian oporraldia dagoela, eta gobernu taldea osatzen duten talde politikoek baino ez dute hori taxutu edo horren berri izan". Izan ere, hori da Alderdi Popularrak erabili duen arrazoiketa. Era berean, bigarren paragrafoan honakoa dio: *"Ezin da nazionalismotik edo nazionalismoarentzat gobernatu"*, eta gero Udalbiltzaren gaia. Eta hirugarren paragrafoak honakoa dio: *"Arrazoi bi horiek abiapuntu hartuta, aurrekontua itzultzea eskatu nahi dugu"*. Bada, horregatik esan da osoko zuzenketa arrazoituta zegoela uste zela, eta argudio komun bitan oinarrituta; hori dela eta, ez da arrazoi bi horien gainean esandako guztia errepikatuko, gauza bera esango bailitzateke.

Udalbiltzaren gaia dela eta, zuzenbide pribatuko elkarteak dela adierazi du, eta zinegotzi eta alkateek bertan ordezkariak dutela, hain zuzen ere, hiru administrazio-mailatan banatuta dagoen herri baten kultur, politika eta nazio integrazioaren alde lan egiteko; beraz, hortik abiatuz, norberak nahi dituen balio-judizioak egin daitezke.

Aurrekontu kontinuitate dela esan da eta horri buruz adierazi du egia dela iraganari begiratzen diola, aurreko udalbatzak aurkeztu zuen lehenengo aurrekontuari; bere ustez Alderdi Popularrak ezin zion kontrako botoa eman, baterako gobernu zegoelako, eta horregatik eman zion aldeko botoa, eta gero abstenitu egin ziren. Bere ustez aurrekontu hau, portzentajea begira, onetsi ziren haiek baino asmo handiagoa da, baina askoz gehiago gastatu nahi baldin bada, sarrerak nondik eskuratzen diren ere identifikatu beharko da; izan ere, gastuen mailen portzentajeak hamar, hogeita hamar, etab. handitzen badira, eta tasak onesterakoan ehuneko hiru koma bost handitzen badira, gastu arrunta hirigintzako lizentziatetik datorren eta arrunta ez den sarrerarekin finantzatu ari da; bada, lizentzia horiek amaitutakoan kreditua eskatu beharko da, baina kontuan izan beharko da ezin dela krediturik eskatu gastu arrunta finantzatzeko.

Jarraian adierazi du ez dela hasiko arrazoi gisa erabili dituzten paragrafoak banan-banan aztertzen, kontuan izan behar baita osoko zuzenketa Alderdi Popularrarenaren ezberdina dela; izan ere, aipatu dituen paragrafo bi horien ostean, beste hamaika edo hamabi zuzenketa daude banan-banan aurkeztuta; eta horiek dira, hain zuzen ere, nolabait, Alderdi Popularraren azaltzen diren arrazoiak ez diren bestelako gaiak zuzentzen saiatzen direnak, eta aurrekontua bideratzen saiatzen direnak. Baina bere ustez gaur egungo egoera politikoan zaila da, hauteskunde orokorretarako hilabete bi falta direla, Alderdi Popularrari edo Alderdi Sozialistari aurrekontua onesteko baietza ateratzea.

Alderdi Sozialistak aurkeztutako zatizko zuzenketei dagokienez, adierazi du ez diela guztiei botoa emango, horietako asko aurrekontuaren barruan planteatuta daudelako eta beste batzuk urte osoko lanarekin egin daitezkeela uste duelako; izan ere, aurrekontuko partida batzuetatik kopuruak ken daitezke, baina gordailatutakoaren barruan eta, ondorioz, diru gutxiago erabili beharko da beste partida batzuetan.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Udal taldeetako bozeramaileak liberatzearen gaia dela eta, adierazi du mahai gainean dagoen idatzizko proposamen bakarra EUDELena dela, berak aurkeztutakoa, hain zuzen ere, eta horrek ez du proposamen alternatiborik jaso. Akordioaren batera iristea gustatuko litzaiokeela esan du, nahiz eta badakien oso zaila dela bera EUDELeko presidentea delako.

Udalbiltzaren gaiari dagokionez, adierazi du ez duela inor konbentzitu, bakoitzak aurrez finkatutako ideiak dituelako. Hala ere, Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak Batasunaren literatura ez erabiltzeko eskatu du, EAJri eta Eusko Alkartasunari adjudikatzeko, eta ez dezatela esan Udalbiltza Eusko Legebiltzara ordeztuko duen erakundea denik, hori ez delako Eusko Alderdi Jeltzalearen eskema, eta izango ez delako.

Adierazi duenez, aurretiaz esan duen bezala, ez du inor konbentzitu, bakoitzak aurrez finkatutako ideiak dakartzalako, baina adibide bat jartzen saiatuko da: gaur bertan liburu

eder bat jaso du *“El exilio de los niños”*, fundazio bik abiarazitako erakusketa baten inguruko liburua berau, Pablo Iglesias fundazioak eta Largo Caballero fundazioak, hain zuzen ere. Bertan, nahiko argia den datu bat agertzen da: babesleen artean udal askoren partaidetza nabarmendu behar da, esaterako, Trapaga, Portugalete, Santurtzi, Ermua, Barakaldo eta Bilbo; udal horiek guztiak, Bilbokoa izan ezik, Alderdi Sozialistak gobernatzan dituen udalak dira eta babesaren ematen diote, baita ekonomikoa ere, Alderdi Sozialistako fundazio biren jarduerari. Baina, gainera, berari, ondo iruditzen zaio. Era berean, adierazi behar da Erreginaren ohoreko batzordearen presidentetza ere badagoela, eta hori xehetasun ona da, eta Bilboko udala, eta Aldundia, ona delako eta berari ere gustatuko litzaiokeelako Alderdi Sozialistarekin eta Alderdi Popularrarekin partekatzea; egun batean Castellet de Sant Cugat del Valles etorri ziren moduan, Nafarroako jota taldeak etor daitezela eta Leioako Gure Ohiturak taldearekin batera egin dezatela, kale-antzerkia egiten den moduan, Iparraldeko operaren musika-jardueraren bat ere egon dadila. Hori da lortu nahi dela, eta ez *Eusko Legebiltzarrarekin amaituko duen talde misteriotsua sortzea*.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa esan du:

Zeharka aipatu dutelako hitz egingo duela adierazi du, EAJko bozeramaileak lehenengo txandan hitz egin ez duenez ezin izan diolako erantzun.

PSE-EE-PSOE taldeak honek baino asmo txikiagoak zituzten aurrekontuak onetsi zituela aipatu du; horren harira adierazi nahi du bera Udalean sartu zenean gobernu taldean zeudela eta aurrekontuei buruzko osoko bilkura horretan zorianak eman ziotela elkarri Leioako udalak, azkenean, bi mila eta bostehun milioi pezetako aurrekontua zuelako. Baina orain beste bi milioi gehiago daude. Noski asmo txikiagoko aurrekontuak zirela!, baina beste garai bati buruz ari gara hitz egiten. Halaber, adierazi du partida batetik kentzen bada beste partida batean ipini egin behar dela. Era berean, adierazi duenez, ez daude beste LPZ bat egitearen kontra baina, aurreproiektua egin aurretik hitz egiteko aukera izan balute, zuzenketak beste modu batean egingo lituzkete. Baina bizkor-bizkor egin behar dituztenez, markatutako epean, horrelakoak gertatzen dira.

Jarraian aurrekontutik Gizarte Laguntza jartzen duen guztia kentzeko adierazi du, bere ustez udalean talde batek ere ez duelako gizarte laguntzaz hitz egin nahi. Bestalde, ez du ulertzen zergatik Gurutze Gorria jartzen duten partida guztiak 0 €rekin gordailatutako partida baten ondoan dauden, ia norbaitek azalduko dion eskatu du.

Ondoren, alkate-udalburu jaunari adierazi dio Udalbiltzaren gaiak ez duela inolako zerikusirik bere hitzaldian aipatu dituen fundazioen gaiarekin. Horren harira adierazi du Sabino Arana fundazioaren gaia aztertu zenean Alderdi Sozialistak ez zuela eztabaidan parte hartu, nahiz eta guztiek dakiten horri buruz zein iritzia duen. Bere ustez logikoa da Eusko Alderdi Jeltzalearen taldeak dituzten udalek Sabino Arana fundazioa diruz laguntzea, baina hori eta Udalbiltza ez dira gauza bera. Ez du inolako lotsarekin esan behar, Alderdi Sozialistako kide oso garrantzitsuak dira aipatutako fundazio bi horietako buruak; horietako bat, gainera, Antón Sagarzibar Leioako Talde Sozialistako militantea da. Baina horrek ez dauka inolako zerikusirik Udalbiltzaren gaiarekin, ez delako fundazio bat. Era berean adierazi du berak inoiz ez duela Eusko Alderdi Jeltzalearen ez EArekin ahotan jarri Batasunak edo ETAK esandako zerbait, hori egiteko beharrik ez duelako, Leioa edo Gobernu Taldearen ideiarekin batekin ados ez dagoelako hitz egin behar duenean ez duelako Batasunarengana jo behar; baina Udalbiltza dena dela esaten duenean, sortu zenean zuen izaerari buruz ari da, nahiz eta orain beste moduren batekoa izan daitekeen, tregua amaitu eta Batasuna joan denean. Hala eta guztiz ere, ezin da fundazio batekin erkatu, eta fundazioaren bat egin nahi bada, egin beharko dute, eta beste moduren batean hitz egin beharko da.

Hitzaldiarekin amaitzeko adierazi su osoko zuzenketa onartu ez arren eta, ondorioz, aurrekontua itzultzea onartu ez arren, aurrekontua xehatu behar denean hainbat gairi buruz hitz egiteko prest egongo direla.

EAKo Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa esan du:

Adierazi duenez, oposizioak aurkeztutako zuzenketak egon arren, bat egingo du EAJ-PNVko bozeramaileak azaldutakoarekin, hau da, aurrekontuak, azken finean, aurrekontuak dira, eta urteak aurrera egin ahala astia egongo da gauzak definitu eta hobeto zehazteko.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Adierazi du ziur dagoela Sabino Arana fundazioari diru-laguntzaren bat eman izan balitzaio iskanbila izugarria sortuko litzatekeela. Bestalde, Gizarte Laguntzako partidaren izenburuari dagokionez, adierazi du oso azalpen erraza duela: ordenagailuak programa estandarra du, eta hori aldatzen saiatuko dira.

Eztabaidaren ondoren, Alderdi Sozialistak proposatutako osoko zuzenketa bozkatu da eta honako hau izan da emaitza:

PSE-EE-PSOE TALDEAK PROPOSATUTAKO OSOKO ZUZENKETAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan **zuzenketaren aurkako hamaika boto** izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak eta EAKo zinegotziarena; **alderdi botoak, berriz, zortzi** izan dira, PPko lau zinegotzienak eta PSE-EE-PSOEko lau zinegotzienak. **Abstentzioak** bi izan dira, IU-EBko zinegotzienak. Ondorioz, PSE-EE-PSOE udal taldeak proposatu duen 2004. urterako aurrekontu orokor bateratuaren osoko zuzenketa **baztertu egin du** osoko bilkurak.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Adierazi du jarraian Ezker Batuak aurkeztutako zatizko zuzenketen eztabaida eta bozketa egingo dela.

Jarraian **IU-EB** udal taldeak aurkeztu dituen zuzenketak agertuko dira:

- 1. zuzenketa: Oposizioko alderdien liberazioak (PP 1, PSE-PSOE-EE 1. IU-EB ½, EA 1/3)
- 2. zuzenketa: Pinuetako Iberdrola azpiestazioa tokiz aldatzea.
- 3. zuzenketa: Etxebizitzak erostea, etxea premiaz behar dutenentzat, etab.

Gehikuntzaren zenbatekoa:

Zuzenketa	Organikoa	Programa	Kontzeptua	Organikoa	Programa	Kontzeptua	Gaur eguneko	Gehikuntzaren zenbatekoa
1	00100	11111	1000000	Gobernu Organoak	Alkate jauna eta erabateko arduraldia	Gobernu Organoen ordainsariak	193.527,24	156.000,00
2	00800	55990	6430000	Inbertsioak	Inbertsioak	Ikerkuntza, azterlanak, proiektuak	200.00,00	100.000,00
3	00600	31400	6290091	Osas. eta Gizarte Ongizatea	Premiazko etxeak	Etxebizitzak erostea	0,00	180.000,00

Murrizketaren zenbatekoa:

Zuzenket a	Organiko a	Programa	Kontzeptu a	Organikoa	Programa	Kontzeptua	Gaur eguneko	Gehikuntza ren zenbatekoa
1	00100	91140	1300200	Zerb. Orokorrak	Zehaztugab.	Beste ordainsari batzuk	853.392,170	156.000,00
2	00900	45020	2270100	Kultura	Kultur etxea	Garbiketa-	573.000,00	73.000,00
2	00900	45020	2269000	Kultura	Kultur etxea	lanak Gastu orokorra	500.000,00	27.000,00
3	01100	91140	1600100	Zerb. Orokorrak	Zehaztugabeak	Giz. Segur.	396.686,19	130.000,00
3	00800	55990	6260100	Inbertsioak	Inbertsioak	Eki. Informat.	280.120,20	20.000,00
3	01100	12150	4220000	Zerb. Orokorrak	Garbiketa-	Udalbitza-	22.500,00	10.000,00
3	00700	44240	2270100	Hirigintza	lanak Z O Bidekoa	Udalbide Garbiketa-	1.400.000,00	20.000,00
						lanak		

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

IU-EBko bozeramaileak hitz egin aurretik, atzo berarekin hitz egin zuela adierazi nahi izan du; elkarrizketa horretan, 2. zuzenketaren transakzioa egiteko aukera planteatu zen. Horren inguruan ikerkuntza, azterlan eta proiektuetarako partida handitzea proposatu du, 200.000 €tik 300.000 €ra, Pinuetan dagoen azpiestazioari buruzko azterlana eta bere etorkizuneko kokapena eta tratamendua lantzeko. IU-EBko bozeramaileari esan dio zuzenketa hori onesteko prest dagoela, kreditu orokorreko partidaren baliabideak kenduz; 2. kapituluan dagoen partida da hori.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa esan du:

Zuzenketak azalduta ez dauden arren, izenburuak nahikoa adierazten duela uste duela esan du. 2. zuzenketa dela eta, Gobernu Taldeari eskertu egin dio eta, beste batzuetan esandakoarengatik, gainerako talde politikoei ere eskertu die, Pinueta auzoko azpiestazioari buruzko azterlana egiten hasi behar delako. 1. zuzenketaren inguruan adierazi du zuzenketa horri aspaldi erantzun zaiola, eta itxaropentxo bat ikusi duela Gobernu Taldeko taldeen artean; hala ere, gauzatuko ez dela suposatu du, aurreikusi duena da, Alkate jaunak EUDELeko presidentea den aldetik oro har akordio hobea lortzea itxaron bitartean, Leioan Eudelen dauden beste udal askok egin duena egingo dela da, hau da, oposizioak geure herritarren interesak defendatu ahal izateko giza baliabideak izan ditzala baimentzea. Gauzak horrela, proposamena beste 2,83 lanpostu sortzea izango litzateke Udal honetako proportzionaltasunari jarraituz, hau da, bat Alderdi Popularrarentzat, beste bat Alderdi Sozialistarentzat, erdia Ezker Batuarentzat eta herena Eusko Alkartasunarentzat, alkateordea ez den zinegotzi liberatu batek kobratu beharreko ordainsariaz.

Hirugarren zuzenketa aurten zozketatuko diren 212 etxebizitzak kudeatu eta zozketatzeko Eusko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmena sinatzeari buruzkoa da. Udalak etxebizitzaren batekin geratzeko klausulak erabili nahi zituela adierazi zuen, eta bere proposamena aurrekontuan horretarako dirua jartzea izan da.

Hiru zuzenketen inguruan adierazi du horietako bakoitzak finantzazio-iturria duela. Udalbiltzaren inguruan adierazi du orain arte geure udala Udalbiltzan sartzearekin ados egon ez den arren, ez eta elkarte horren jarduerak diruz laguntzearekin ere, gutxienez aurten nahikoa

dela iazko zenbatekoaren bikoitza izatearekin; eta, bera kontra egon arren eta alkateak hauteskunderen gauean azaldu zion bezala, Leioako herritarren erdiak baino gehiago kandidatura horri eman zion botoa eta, beraz, arrazoiren bat izango dutela pentsatu behar da, eta horregatik ez du partida kentzea proposatu.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa esan du:

Ezker Batuak planteatutako hiru zuzenketa aldeko botoa emango dutela adierazi du. Gobernu taldeak gehiago absolutua eta botoen %50 eskuratu izanari dagokionez, adierazi du horrek ez duela Udalbiltzaren gaia arrazoitzen, beraien aldeko botoa eman zutenen eta eman ez zutenentzat ari direlako gobernatzen.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa esan du:

Adierazi du kontzeptu ezberdin bi daudela, gehikuntza-zuzenketa eta murrizketa-zuzenketa eta, ondorioz, talde bi horiek banatuta bozkatzeko eskatu du.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Adierazi du, ondo baderitzote, bakoitzaren jarrera argi geratzeko, lehenengo eta behin lehenengo zuzenketa, gero bigarrena eta azkenik hirugarrena bozkatuko direla.

Jarraian berriro adierazi du bigarren zuzenketa beste 100.000 € sartzeko konpromisoa hartuko duela 6. kapituluko ikerkuntza, azterlan eta proiektuetarako partidan, 200.000 €tik 300.000 €ra igaroz. Hori, gastu orokorreko 2. kapituluaren partida batekin finantzatiko litzateke, Pinuetan dagoen azpiestazioaren azterlana hartzeko konpromisoarekin. Etxebizitzak eskuratzeari dagokionez, publikoki hartuko duela konpromisoa 556.000 €ko zenbatekoa partida horretatik har dadin eta, gehiago behar izango balitz, aurrekontua burutu bitartean gehitu dadin.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa esan du:

Adierazi duenez, berak nahi duena Udalak etxebizitzak erostea da eta alkate jaunak badio partida horren kargura erosiko dituela, 3. zuzenketa kenduko du; logikoa den moduan, horrek pena apur bat ere ematen dio, Udalbiltzari buruz zioenarengatik; izan ere, berriro dio nahikoa dela iazko zenbatekoaren bikoitza izatearekin, Udalbiltza dela eta zertan gastatu den arrazoitzen badute, antza gehiago izango du GKE batekin edo kultur erakunde batekin orain arte ikusi denarekin baino.

Eztabaidaren ondoren, Ezker Batuak aurkeztutako zuzenketa biak bozkatu dira, proposamena aurkeztu dutenek hori erabaki ondoren, hirugarrena kendu egun delako. Honakoa izan da emaitza:

IU-EB TALDEAK PROPOSATUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan **zuzenketa aurkako hamaika boto** izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzian eta EAko zinegotziarena; **aldeko botoak, berriz, hamar** izan dira, PPko lau zinegotzian, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzian eta IU-EBko bi zinegotzian. Ondorioz, IU-EB udal taldeak 2004. urterako aurrekontu orokor bateraturako proposatu duen 1. zuzenketa, oposizioko alderdien liberazioei buruzkoa, **baztertu egin du** osoko bilkurak.

IU-EB TALDEAK PROPOSATUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

IU-EB udal taldeak 2004. urterako aurrekontu orokor bateraturako proposatu duen 2. zuzenketa, Pinuetako Iberdrola azpiestazioa tokiz aldatzeari buruzkoa, **aho batez onetsi egin du** osoko bilkurak.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa esan du:

Jarraian Alderdi Popularraren zuzenketa eztabaida eta bozketa egingo dela adierazi du, bere ustez batera aurkeztuko direnak.

PPk guztira 41 ZATIZKO ZUZENKETA aurkeztu dizkio 2004rako aurrekontuari.

Lehenengo lau zuzenketak sarreren partidak eta gastuen partida bi aldatzeko dira; horien bitartez, finantziarako proposamen zehatza eskuratzen da. Gainerako 37 zuzenketak jarduera-eremu ezberdinetan sartutako gastu-proposamenak dira.

Leioako Udalaren 2004ko aurrekonturako proposatutako zatizko zuzenketak. Finantziarioa

Zk.		DESKRIBAPENA	ZENBATEKO A	PARTIDA	Gehik./Murriz.
1	Diru-sarrera	Hirigintzako konpentsazioak	725.000	7710500	Gehikuntza
2	Diru-sarrera	Hirigintzako lizentziak	350.000	3120100	Gehikuntza
		DIRU-SARRERA HANDIAGOAK, GUZTIRA	1.075.000		
3	Gastua	Udalbiltza-Udalbide	22.500	422000012150	Murrizketa
4	Gastua	Gastu osoa %5	425.000	226900012180	Murrizketa
		DIRU-SARRERA HANDIAGOAK + AURREZTUTAKOAK, GUZTIRA	1.522.500 €		

Leioako Udalaren 2004ko aurrekonturako proposatutako zatizko zuzenketak.

Zk.		DESKRIBAPENA	ZENBATEKO A	JATORRIA	PARTIDA	Berria/Gehik.
		Hirigintza				
5	Gastua	La Avanzada errepidea estaltzeko proiektua (I. Fasea)	150.000	Diru-sarrera handiagoak	643040055990	Berria
6	Gastua	Azoka-barrutiaren proiektua	150.000	Diru-sarrera handiagoak	643070055990	Berria
7	Gastua	Lamiako-Txorierrri arteko sarbide berriaren proiektua	75.000	Diru-sarrera handiagoak	643080055990	Berria
8	Gastua	Auzoak edertzea eta apaintzea	20.000	Diru-sarrera handiagoak	601010059992	Berria
		Udal-zerbitzuak				
9	Gastua	Kontratazioko udal-bulegoa	32.000		226900012180	Partida ugari

10	Gastua	Hiriarteko mikrobusen sareari buruzko azterlana	40.000	Diru-sarrera handiagoak	643000059995	Berria
11	Gastua	Udal-zerbitzuen berregituraketa	140.000	226900012180	643000059998	Berria
12	Gastua	Udaleko talde politikoetako langileak	80.000	226900012180	100000011114	Berria
13	Gastua	Udalaren aldirakaria	22.500	422000012150	226030052101	Gehikuntza
Kultura eta Kirolak						
14	Gastua	Sakoneta kiroldegiko langile-kopurua gehitzea	70.000	226900012180	Partida ugari	
15	Gastua	"Leioa XXI. mendean" literatura saria	15.000	226900012180	481270945700	Berria
16	Gastua	Olentzero/Errege Magoak sustatzea	25.000	226900012180	481150045140	Gehikuntza
17	Gastua	Kultur taldeak	22.000	226900012180	481150045070	Gehikuntza
18	Gastua	Kirol-taldeak	22.000	226900012180	481180046060	Gehikuntza
19	Gastua	Erdi Aroko azoka	19.000	226900012180	481170045400	Berria
20	Gastua	Leioa Komunitatea. Ikerketa eta hedapena.	30.000	Diru-sarrera handiagoak	481270945500	Gehikuntza
21	Gastua	Leioako planetarioaren proiektua	130.000	Diru-sarrera handiagoak	643060055990	Berria
Hezkuntza						
22	Gastua	Hiriko hondakinei buruzko eskola-kanpaina	12.000	Diru-sarrera handiagoak	481100032200	Berria
23	Gastua	3. munduari laguntzeko eskola-jarduerak	12.000	Diru-sarrera handiagoak	490000032131	Gehikuntza
24	Gastua	Eskola-osasuna: tabakoaren aurkako kanpaina	20.000	Diru-sarrera handiagoak	481220032450	Berria

Gizarte Ongizatea eta Osasuna						
25	Gastua	Txirotasunaren aurkako borroka. Premiazko etxeak	18.000	Diru-sarrera handiagoak	480080031400	Gehikuntza
26	Gastua	Tratu txarrak jasaten dituzten pertsonentzako aldi baterako etxeak	20.000	Diru-sarrera handiagoak	481260032400	Berria
27	Gastua	Aurreikusitako bako gizarte-larrialdiko beharrianak	20.000	Diru-sarrera handiagoak	480080031500	Berria
28	Gastua	Anorexia eta bulimia kasuentzako aholkularitza	15.000	Diru-sarrera handiagoak	481230032400	Berria
29	Gastua	Elbarriek trat. psikopedagogikoa izateko diru-laguntzak	3.000	Diru-sarrera handiagoak	480030032340	Gehikuntza
30	Gastua	Immigranteentzako Gizarte Laguntzarako Gunea	60.000	Diru-sarrera handiagoak	Partida ugari	
31	Gastua	Gazteentzako aisia alternatiboaren programa	40.000	Diru-sarrera handiagoak	481150045181	Berria
32	Gastua	Haurtzaindegietarako diru-laguntzak	6.000	Diru-sarrera handiagoak	481220032410	Gehikuntza
33	Gastua	Alkohol kontsumoari	15.000	Diru-sarrera	481220032390	Gehikuntza

		buruzko kanpaina		handiagoak		
34	Gastua	Ezintasun handia duten pertsonak	12.000	Diru-sarrera handiagoak	481010044520	Gehikuntza
35	Gastua	Arratoi-garbiketa	12.000	Diru-sarrera handiagoak	226990041310	Gehikuntza
		Ingurumena				
36	Gastua	Udondo ibaiko ingurune hezeari buruzko azterlana	20.000	Diru-sarrera handiagoak	643000059991	Berria
37	Gastua	Hegazti migratzaileentzako babeslekua Lamiakon	20.000	Diru-sarrera handiagoak	643000059992	Berria
38	Gastua	Leioako flora, fauna eta geari buruzko azterlana	20.000	Diru-sarrera handiagoak	643000059994	Berria
39	Gastua	Hots-kutsadurari buruzko azterlana	20.000	Diru-sarrera handiagoak	643000059997	Berria
40	Gastua	Leioako Ingurumen Ikasgelaren proiektua	100.000	Diru-sarrera handiagoak	643050055990	Berria
		Merkataritza				
41	Gastua	Saltoki txiki eta ertainen egoerari buruzko azterlana	35.000	Diru-sarrera handiagoak	643000059993	Berria
		GASTUA, GUZTIRA	1.522.500 €			

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa esan du:

Adierazi duenez, aurkeztu duten osoko zuzenketa baztertu denez, hainbat zatizko zuzenketa egingo dizkiotela aurrekontuari, ahal den heinean hobetzen saiatzeko eta, betiere, bere talde politikoak udal aurrekontua hobetzen saiatzeko duen erantzukizuna beregain hartuz.

Aurretiko azalpen moduan, guztira 41 zuzenketa direla esan du; horietako lau gainerako 37 zuzenketen finantziazioa lortzeko dira; horiek, gastu-proposamen zehatzak izango lirateke, edo dauden partiden gehikuntzak, edo beste partida batzuk sortzeko proposamenak.

Lehenengo lau zuzenketak gainerakoetarako finantziazioa lortzeko dira; horren inguruan adierazi du lehenengo zuzenketa biak sarrera-zuzenketak direla, partida bitan sarreren zenbateko handiagoa aurreikusi edo espero delako, hau da, hirigintzako konpentsazioak eta hirigintzako lizentziak: guztira 1.075.000 € gehiago. Horretarako oinarria, batez ere, udalerrian garatu gabe dauden eta aurten nabarmen bultzatuko diren hirigintzako eragiketak dira.

3. eta 4. zuzenketak gastu murrizketak dira: bata Udalbiltza-Udalbide gaiari buruzkoa da, berau kentzea proposatu baitute; 4. zuzenketa gastu osoa (%5) 425.000 €tan murriztea izango litzateke. Bada, guztira, 1.522.500 €ko finantziazioa lortuko litzateke, gainerako 37 zuzenketak finantzatzeko; horiek jarduera eremu ezberdinetan daude banatuta, esaterako, hirigintza, udal-zerbitzuak, kultura eta kirolak, hezkuntza, gizarte ongizatea eta osasuna, ingurumena eta merkataritza.

5. zuzenketa, Hirigintza atalaren barruan, La Avanzada errepidea estaltzeko proiektuari buruzkoa da. Horren inguruan adierazi du gaur egun udalerrian dagoen arazorik handienetakoa dela, baina aurrekontu honetan ez dela zehatz aztertu, eta aurten horretarako proiektu zehatza egotea nahi dutela. Hori dela eta, gogoratu zuen bere taldeak iazko hauteskunde-programan, LA Avanzada guztiz estaltzeko proiektua azaldu zuela, hau da, Artazako biribildunetik Mendibilen egingo den biribilguneraino, eta ez Gobernu Taldeak proposatzen duen hori, hau da, hiri-gunea bakarrik estaltzea. Lehenengo fase horretarako, gaur egun hiri-gunean estali gabe dagoena estaltzea, gastu proposamen zehatza planteatu dute.

Udondoko azoka-barrutiari dagokionez, Eusko Alkartasunako ordezkariak izen ona galdu dion arren, proiektu garrantzitsua dela uste dute, geure udalerraren ekonomia eta

gizartearen motore izan daitekeena eta, are gehiago, Udondoko bulebarraren gunea izango den zabaltze eta garapen arloan.

7. zuzenketa Lamiako eta Txorierrri arteko sarbide berriaren proiektuari buruzkoa da. Horren inguruan adierazi du ez dela onargarria gaur egun auzo bi horiek berrehun eskaileraren bitartez lotuta egotea; izan ere, hurbileko udalerrietan ikusi dute antzeko orografia-zailtasunak saihesteko konponbideak ezarri dituztela, esaterako, eskailera mekanikoak edo igogailuak.

8. zuzenketa auzoak edertu eta apaintzeko partida aztertu dute: kontratazioko udal-bulegoa; atal honetako beste zuzenketa bat, hiriarteko mikrobusen sareari buruzko azterlana da: une honetan tranbiaren proiektua idazketa-fasean dagoenez, beren ustez une egokia da Udalak, tranbia osatuz, udalerriko mugikortasun arazoari behin betiko konponbidea emango dion azterlana sustatzeko; horrek, auzo ezberdinen arteko mugikortasuna zein eskualdeko garraio-bide nagusiarekin (Bilboko metroa) lotzeko mugikortasuna konponduko ditu.

Beste zuzenketa bat proposatu dute udal-zerbitzuen berregituraketa abiarazteko. Duela hiru urte baino gehiago, 2002ko martxoan, azterlana aurkeztu zitzaion enpresa bati, udal-zerbitzuen egungo kokapena hobetzeko aukerak aurkez zitzan, Udaletxea, argi eta garbi, gainezka dagoelako. Hori duela urte bi baino gehiago izan zen eta, euren ustez, guztiz beharrezkoa da udal-zerbitzuen berregituraketaren gaiari ekitea. Batzordean oraindik 2002ko martxoan eskatu zen azterlan horri buruzko informazioa eman ez dela adierazi du, eta azterlan horrek ezarritakoaren arabera, udal-zerbitzuen berregituraketaren gaiari ekiteko unea dela uste dute, bai Udaletxea handituz, bai beste eraikin bat eraikin, edo bai azterlan horrek aholkatzen dituen gainerako neurriak hartuz.

Beste zuzenketa bat ere planteatu dute, udaleko talde politikoetako giza baliabideak gehitzeko. Ezker Batuak aurkeztu eta baztertu egin den zuzenketa atzekoa da eta, gogorarazi nahi izan du Alkatetzak uda aurreko osoko bilkura batean, udalerrian gai horri argi ekiteko konpromisoa hartu zuela. Beren ustez, konpromiso hori ez da bete eta, antza denez, ez da beteko. Alderdi Sozialistako bozeramaileak lehen aipatu duen bideari jarraituz, errepikatu egin du demokrazia batean Gobernu Taldearen lana bezain garrantzitsua dela oposizioko taldeen lana eta, ondorioz, beren ustez, oposizioak gaur egun dituenak baino bitarteko duinagoak izan beharko lituzke.

Era berean, udalaren aldizkaria hobetzea ere proposatu dute, aldizkaria sortu zenetik Batzordean hainbatetan aipatu duen gaia; izan ere, bere ustez, formatu handiagoa eta eduki gehiago izan beharko lituzke, besteak beste, oposizioko taldeek gai ezberdinei buruzko beren ikuspegia azaldu ahal izateko tartea izan dezaten.

Kultura eta Kirolak atalean hainbat zuzenketa proposatu dituzte, esaterako, 14.a, Sakoneta kiroldegiko langile-kopurua gehitzearena. Beren ustez asteburu eta jaiegunetarako Kiroldegia egungo ordutegia ez da nahikoa, eta hainbatetan esan dute hori; Pinosolon beste kiroldegi bat egiteko proiektua dago eta, beren ustez, ez da logikoa Sakonetako kiroldegia asteko zazpi egunetan ahalik eta gehien aprobetxatzen ez den bitartean, kirol-instalazioetarako beste proiektu bati ekitea, beharrezkoa dela uste duten arren, era berean, gaur egun dagoena guztiz aprobetxatu behar dela uste baitute.

Hona beste arlo honetako beste proposamen batzuk: literatur saria ezartzea; Olentzero eta Errege Magoak bezalako gabonetako ekitaldiak sustatzea; kultur eta kirol taldeei diru-laguntza handiagoak ematea; duela bizpahiru urte antolatzen zen Erdi Aroko azoka berreskuratzea, Leioarentzat interesgarria izan daitekeela uste dutelako; Leioa Komunitatea, Ikerketa eta Hedapena-ren partida handitzea, aurten zero eurora murriztu delako, ikerketa-ildo horrekin jarraitzeko 30.000 €ko partida mantentzea interesgarria izan baitaiteke; 21. zuzenketa Leioako planetarioaren proiektuari buruzkoa da eta, horrela, nolabait, Leioako Ingurumen Ikasgelaren proiektuarekin lotu du, biek dutelako hezkuntza eta hedapen helburua, eta Udalerrarentzat interesgarriak izan daitezkeela uste dute.

Hezkuntza arloan hiru zuzenketa planteatu dituzte: hiri hondakinei buruzko eskola-kanpaina sortzea; hirugarren munduari laguntzeko eskola-jarduerak mantentzea, eta udalerriko ikastetxeetan tabakoaren aurkako kanpaina egitea.

Gizarte Ongizate eta Osasun arloan hainbat proposamen egin dituzte: txirotasunaren aurkako borrokaren barruan, premiazko etxeak prestatzea, tratu txarrak jasaten dituzten pertsonentzako aldi baterako etxeak, Ezker Batuaren zuzenketa proposatutakoari jarraituz eta, nolabait, Gobernu Taldeak azkenean bildu duenari jarraituz. Halaber, aurreikusi bako gizarte-larrialdiko beharrezkoen beste partida bat eta anorexia eta bulimia kasuetarako aholkularitzarako partida ere eskatu dute. Era berean, elbarriek tratamendu psikopedagogikoa izateko laguntzak, haurtzaindegietarako diru-laguntzak, alkohol kontsumoari buruzko kanpainaren zenbatekoa, ezintasun handia duten pertsonentzako laguntzak eta arratoi-garbitzeko zenbatekoak gehitzea proposatu dute; izan ere, aurreko zero euroko aurrekontua dute, eta partida mantentzea proposatu dute.

Halaber, 30. zuzenketa, immigranteentzako Gizarte Laguntzarako Gunea sortzea proposatu dute, fenomeno hori gure udalerrian, gaur egun udalerrri gehienetan bezala, bereziki garrantzitsua dela uste delako. Horrek udalak ahalegin berezia egitea behar du, sarritan immigranteen taldearen berriazko hainbat arazo konpontzeko gunea sortzeko.

Gazteentzako aisia alternatiboaren programa ere proposatu dute. Proposamen hori beste urte batzuetan ere egin da, baina Gobernu Taldeak ez du ideia bildu. Beren ustez positiboa da, aisiarako alternatiba ezberdinak eskaintzen direlako; gainera, programa horiek, adibidez, Bilbo, Portugalete edo Sopela bezalako udalerrietan ezarrita daude jada, gazteek asteburuetan aisia alternatiboa izan dezaten.

Ingurumenaren arloan bost zuzenketa planteatu dituzte: Udondo ibaiko ingurune hezeari buruzko azterlana; Leioako flora, fauna eta geari buruzko azterlana; eta hots-kutsadurari buruzko azterlana. Era berean, Lamiakon hegazi migratzaileentzako babeslekua egitea proposatu dute: Hirigintza eta Ingurumen Batzordean jada proposatu zuten Udalerrian hegazi migratzaileentzako babesleku gisa erabiltzen zen gunearen egoerarekin berri izatea eta, bide horretan, beste urrats bate ematea, Udalak arazoa konpontzeko irtenbide zehatzen bat planteatzea. Azkenik, arlo honetan, Ingurumen Ikasgelaren proiektua egongo litzateke, lehen aipatu duen planetarioarekin lotuta.

Bukatzeko, Merkataritza arloan, udalerriko saltoki txiki eta ertainen egoerari buruzko azterlana egitea proposatu dute; beren ustez beharrezkoa da Leioan ezarrita dauden merkataritza-gune handien aurrean sektore honek beren lehiakortasun aukerak handitzeko.

Azken batean, bere hitzetan, horiek dira aurrekontuari aurkeztu dizkioten zatizko 41 zuzenketa, labur-labur azalduta; beren ustez, Gobernu Taldeak aurkeztu dituen partida zehaztetako kontuak hobe ditzaizkete.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa esan du:

Zuzenketa batera bozkatuko direnez, abstenitu egingo direla azaldu du, nahiz eta zuzenketa batzuekin ados egon, baina guztiekin ez. Hain zuzen ere, ez daude ados diru-sarrera handiagoak eskatzen dituzten zuzenketekin, hirigintzako lizentzien gaia arriskutsuegia dela uste dutelako; izan ere, hori eta beste mila sartuko direla planteatu daiteke, baina beren ustez gaia ez da seriotasunez azaldu. Gastuen zuzenketei dagokienez, lehen esan duen bezala, batzuekin ados daude eta beste batzuekin ez hainbeste, baina guztiak batera bozkatuko direnez, abstenitu egingo da.

Jarraian adierazi zuen zuzenketa zehatz bat adierazi nahi duela: Lamiako-Txorierriko arteko sarbide berriaren proiektuari buruzkoa. Berau aztertzeko konpromisoa har zitezen saiaturik dela adierazi du, horretarako partida zehatzik egon ez arren; izan ere, PPko bozeramaileak aipatu dituen berrehun eskailerak berak aipatu zituen duela gutxi osoko bilkura batean, eta EAJ-PNVko bozeramailearekin bisita egingo zuela agertu zuen, eskailerak birritan

igo eta jaitsiz, aurpegiko irribarreak bere horretan jarraitzen zuen ikusteko. Baina noski, proba hori ez da egin; beraz, proiektu hori burutzearekin guztiz ados daudela argi geratzea nahi du, beharrezko dagoelako. Gainera, beren ustez ez da beharrezkoa horretarako partida bat zehaztea, seguruenik aurrekontuan hori burutzeko partidak daudelako.

Bukatzeko adierazi zuen gai batzuekin ados daudela, baina diru-sarreraren gaiaren ondorioz eta guztia batera bozkatuko delako, abstenitu egingo direla.

Eako Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa esan du:

Adierazi zuenez, Alderdi Sozialistari lehen azaldu dizkion arrazoi berberengatik eta, gauza zehatzak egon arren, kontrako botoa eman dio; orain ere kontrako botoa emango du baina, adierazi zuenez, astia egongo da Batzordeetan horien ingurukoak erabakitzeak, nahiz eta berak orain arte proposamen askorik aurkeztu ez duen, baina orain lehenengo garrantzitsuenak aurkeztu beharko ditu.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa esan du:

Abstenitu egingo direla adierazi du, Euskadiko Alderdi Sozialistak azaldutako arrazoi antzekoengatik; izan ere, beren ustez ez da oso baliagarria 1.075 milioi ateratzeko modua eta, halaber, ez daude zenbait gauzarekin ados, esaterako, udalerraren arazo nagusietako bat La Avanzada guztia edo zati bat estaltzea denik, lehentasun handiagoa duten beste hainbat gauza daudelako.

Horren harian azaldu zuen gauza batzuekin oso ados egon zitezkeela, eta beste batzuekin ezetz, esaterako, Leioako planetarioaren gaia; izan ere, berak ez daki Leioak planetarioa behar duen, edota akordioa egin behar den Portugaleterekin, bertan dagoenari buruz. Txorierri auzora heltzeko eskailerei dagokienez, bera udalean sartu aurretik Javier Castro IU-EBko zinegotziak ere proposamena egin zuela adierazi du; proposamen hori eskailera mekanikoak edo igogailua instalatzeari buruzkoa zen eta barre-algarak sortu zituen bertan zeudenen artean; orain, aldiz, beste batzuek proposatu dutenez, ematen du hori egitea ezinbestekoa dela; gai horretan, ados egongo lirateke.

Nolanahi ere, ez daude ados beste hainbat gairekin eta, horregatik, batera bozkatuko denez abstenitu egin beharko dira.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa esan du:

Adierazi duenez, kontrako botoa emango diote zuzenketen multzoari, arrazoi birengatik: lehenengoa, ez dutelako nahi ezezko borobila, kasu honetan Alderdi Popularrak egindako lanarenganako mespretxua eta harrokeria izango balitz bezala interpretatzea; izan ere, lan guztiek dute errespetatzeko eskubidea eta, proposatu diren gauza askorekin ados ez egon arren, beste batzuetan ados egon daiteke eta egindako lana aintzat hartu du.

Bigarren arrazoiak, zuzenketak banatuko dituela da, eta Alderdi Popularraren aurrekontuaren abstentzioa lortzea espero du.

Gero Alderdi Sozialistari gauza bera esango diola adierazi du, nahiz eta, bere ustez, errazagoa den Alderdi Sozialistarekin, aurkeztu dituen zuzenketengatik. Lehenengo eta behin, aurrekontu hau ikusteko moduari buruz hitz egin du: beren ustez, aurten, zementu gutxi eta hausnarketa ugari egongo da seguruenik; izan ere, gaur egungo Gobernu Taldeak duela lau urte gutxienez hamabi urterako iragartzen zuen hauteskunde-programa aurkeztu zuen: lehenengo lau urteetan oso argi zeukaten udalerriko azpiegiturretan inbertitu behar zela, orain, oso ondo pentsatu behar da zer egin nahi den, ondoren burutzeko, eta hutsik ez egiteko. Jarraian, Alderdi Popularraren zuzenketei dagokienez, adierazi du planteatu diren gastuak bat etortzea oso zaila dela Alderdi Popularrak planteatu duen finantziario-moduarekin; izan ere, ezin da pentsatu hirigintzako konpentsazioak edo hirigintzako lizentziak, berez, planteatutakoak baino handiagoak izango direnik. Ez dio ezinezkoa denik, baina ezin da ziurtzat eman, hirigintzako konpentsazio

eta lizentzia horietan Gobernu Taldeak ez duelako inolako balorazio politikorik egin: udaletxeko hirigintzako teknikari eta ekonomialarien azterketa teknikoa dago, horiek baitira aurten bilduko dena aurreikusteko ardura dutenak eta, horrekin, ezin da balorazio politikorik egin, aurreikuspenak goranzkoak zein beheranzkoak izan daitezkeelako.

Jarraian adierazi du bere ustez Alderdi Popularraren zuzenketetan agertzen denaren harira, bertako zuzenketa asko finantzatzeko gastu orokorra erabiliko litzatekeela. Hori, aurrekontuen teknikari dagokionez, zuzena dela uste du, baina arazoa honetan datza: gastu orokor horrekin ezin dira ontzat eman konpentsazio eta lizentzietako gehiegizko sarrerak, azkenean sarrerak baitira planteatzen dituzten gastuetako asko finantzatzeko erabiltzen direnak, eta bera ez da ausartzen horiek zeintzuk izan beharko liratekeen esaten.

La Avanzada estaltzeko proiektuari dagokionez, honakoa adierazi du: Foru Aldundiaren aurrekontuko lehentasunak aztertzen badira, argi azaltzen da iparraldeko ibai azpikoa atzeratzen dabiltzala, apustua "super sur" izenekoaren alde egin baitute; bada, Foru Aldundiak La Avanzada hiri-gunean estaltzeko proiektua finantzatzea nahi da, eta ez PPK nahi dituen kilometro biak, bere ustez ez delako beharrezkoa, oso garestia delako; izan ere, horiek dira Bizkaiko Foru Aldundiarekin izaten ari diren elkarrizketak, lehen ezin zelako proiektu honen gainean serio lan egin, tranbiaren trazadura izan bitartean, Luis Bilbao Libano kaletik edo Sabino Arana etorbideetik joango zen ez genekielako; baina, gaur egun, badirudi Eusko Jaurlaritzaren aukera Sabino Arana etorbideetik doana dela. Beraz, jada azter daiteke tranbiak hirigunean, bulebarrean eta La Avanzada estaltzean duen eragina, eta horri buruzko proiektua aurten eska daiteke. Baina Leioako udalak proiektua ordaindu behar ez izatea espero du, hau da, Aldundiak finantza dezala.

Azoka-barrutiaren proiektuari dagokionez, bere ustez ez da beharrezkoa hori burutzea.

Lamiako eta Txorierrirako sarbide berriaren proiektua dela eta, guztia aurreikusi moduan eta behar bezala badago, hiru urte eta erdi geratzen dira berau burutzeko, eta burutzea espero du. Era berean, urte honetan proiektuari buruz hitz egin ahal izatea espero du, Txorierriraino eskailera mekanikoak jartzeko proiektua ezin delako burutu, 20 edo 30 metroko tartea duten eskaileren bitartez estali ahal izango litzateke, baina teknikoki ezin da 200 metro inguruko tartea burutu. Hala ere, beste alternatiba mekaniko batzuk daude, esaterako, funikularra, igogailua, etab, baina eskailerak ez. Horri buruz, egindako proiektuak daudela adierazi du, eta aurten proiekturen bat aztertu ahal izatea espero duela, aurrekontuan, berrehun mila euro inguruko zenbatekoa duten proiektuak idazteko partidan, dagoen diruarekin. Hori dela eta, bere ustez, zuzenketan aurreikusi diren gainerako hirurogeita hamabost mila euroak beharrezkoak dira.

Auzoak edertu eta apaintzeari dagokionez, aurrekontuan hogeita mila euro baino askoz gehiago dagoela adierazi du, askozaz gehiago eta, horregatik, bere ustez, ez da beharrezkoa partida hori handitzea.

Zuzenketan Kontratazioko udal-bulegoa dela eta, zuzenketan hogeita hamabi mila euro gehitzea aurreikusi dute. Horren inguruan esan du LPZn finantzazioa dagoela langileen kapituluan, Erosketa burua kontratatzeko; bada, Erosketetako Administrari Laguntzailea batzen bazaio, Erosketen Bulegoa sortuko da.

Hiriarteko mikrobusen sareari buruzko azterlanaren inguruan, Aldundiarekin izandako elkarrizketen arabera, Aldundiak finantzatuta Leioan proiektu pilotu bat egitearen aukeraz konbentzitzen ari direla adierazi du.

Udal-zerbitzuen berregituraketari dagokionez, ados dago, baina badago horretarako partida bat. Bada, Udalaren datozen urteetarako erronketako bat Udaletxea atontzea da; beraz, bere ustez, partida handitzea ez da hain beharrezkoa.

Udaleko talde politikoetako langileen gaia dela eta, ados ez dagoela adierazi du, Alkate jaunak lehen adierazi duenarengatik. Bere ustez, egokia izango litzateke toki-karguaren

estatutuaren gaiari eta liberazioei buruzko akordioa lortzea baina, bere ustez, Eudel da foroa eta bertan arrazoizkoa iruditzen zaion proposamena dago. Era berean, adierazi du ez duela beste inolako idatzizko proposamenen berri izan eta, entzun dituenak, ez ditu arrazoizkotzat jotzen. Beraz, ez du inolako zalantzarik: alderdi politikoen artean akordioaren bat lortzen bada, Leioan biharamunetik aurrera aplikatuko da.

Udalaren aldizkariaren inguruan uste du Udal honek oso aldizkari duina duela eta, gainera, web-gunearekin osatzen bada, are gehiago. Bere ustez oso duina da aldizkarian egiten den ahaleginarekin eta batez ere udal erabakiak bilduz egin den lana kontuan hartuta, udal propagandarako aldizkaria ez delako.

Kultura eta Kirolak arloari dagokionez, gaur egun ez dago ados Sakoneta kiroldegiko langile-kopurua gehitzearen inguruan esandakoarekin. Kultura eta Kirolak arloko gainerako gaien inguruan (Leioako planetarioaren proiektua) IU-EBko ordezkariak azaldutako gauza bera uste du, hau da, ez dela beharrezkoa. Erdi Aroko azokari buruz, Leioa erdi aroko gunea duen udalerria izango balitz, baietz esango luke, baina horrela ez denez, ados ez dagoela adierazi du.

Kultura eta Kirolak arloko gainerako gaien (sariak, sustapena, Leioa Komunitatea) eta hezkuntza, eskola-osasuna, eskola-jarduerak eta gizarte ongizatearen inguruan adierazi du aldi baterako etheen gaia aipatuz, horretarako etxebizitzak eskuratzeko konpromisoa dagoela. Gainerako partidak programak, aholkularitzak, diru-laguntzak eta arratoi-garbiketa dira. Horien inguruan adierazi du lehenengo aldia dela azken urteetan partida asko berrantolatu direla, eta horietako asko beste partida batzuetan daudela: arratoi-garbiketa, esaterako, bide-garbiketa orokorraren barruan dago, eta gauza bera adierazi du aipatu diren ingurumen-azterlanei buruz. Merkataritza azterlanari dagokionez, adierazi du merkatarien elkarteak azterlana eguneratzea eskatu arte itxarongo lukeela berak; izan ere, merkatarien elkarteak berak eskabidea egin arte, berau egitea beharrezkoa ez dela uste du.

Bukatzeko adierazi du zuzenketa askori ezetz esan badie, aurrekontua gehitu gabe ere horiek burutuko direla uste duelako izan dela. Baina arazo bat dago: berrehun mila euroekin ezin dira proposatutako azterlan guztiak egin eta, ondorioz, urtean zehar ados jarri beharko dira gastu orokorrenekin zein azterlan egingo diren eta zein ez erabakitzeke.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa esan du:

Eusko Alderdi Jeltzaleari gogorarazi nahi izan dio aurrekontu osoaren kontrako zuzenketa aurkeztu dutela eta, beraz, haren alderdi politikoak borondate ona izan arren, aurrekontu osoaren kontra ezezko botoa baino ez dutela eman. Iritzi hori, gainera, aldaezina da.

Alderdi politikoek eman dituzten argudioei dagokionez, Alderdi Sozialistaren eta Ezker Batuaren abstentzioa onartzen duela adierazi du, eta deitoratu egiten du hori, zeren eta, bere ustez, talde horiek laguntza handiagoa eman behar baitzuten, planteatzen diren proposamenak nahikoa koherenteak direlako. Zehazkiago esanda, bereziki sarreraren aldaketa-proposamenei leporatu zaizkien sarreraren diru-atalaren inguruan, sarrera handiagoak izatea aurreikusi baitute aldaketa-proposamenetan. Horri buruz esan du erantzukizuna eta egiten diren azterketa teknikoak oinarritzat hartuta egin direla proposamenok, baina beti beheranzko aurreikuspena egiten da. Hori dela-eta, guztiz egingarria izan daitekeela planteatzen dute diru gehiago biltzea hirigintzako konpentsazioetan eta lizentzietan.

Planteatu diren 37 aldaketa-proposamenei buruz EAJ-PNVk erantzun duenari dagokionez, alde batetik erantzun izana eta bestetik aldaketa-proposamen batzuen kontrako jarreraren zergatia azaldu izana eskertu nahi izan du, baina emandako arrazoibideekin bat ez datozela ere adierazi du. Antza denez, planteatu dituzten proiektu edo proposamen asko egin egingo direla esan du eta, jakina, esan den guztia egia bada, poztasun berezia izango du, eta gainera bereziki legealdi positiboa izango da, baina errealitateak hala ez dela erakusten die: 1999an Eusko Alderdi Jeltzaleak hauteskundeetarako egindako promesa nagusietako bat hirigunea estaltzea izan zen, eta lau urte igarota ez da ezer ukitu. 2003ko hauteskundeetan

berriz egin du promesa bera, eta, hala ere, legealdiko lehen aurrekontuan ez da gaia argi lantzen; Aldundiak ordainduko duela esaten da, baina beren ustez, jakina, Udalak bultzatu egin behar du proiektua: borondatea agertu bakarrik ez, dirua ere jarri behar du proiektuan. Era berean, udalerriek edo hiriek proposamenak izan behar dituztela uste dute etorkizunari begira; proposamen hau positiboa da eta lehenbailehen egitea espero dute, nahiz eta Gobernu Taldeak, antza denez, errezeloak izan. Izan ere, Gobernu Taldea, dirudienez, pozik egongo litzateke hirigunearen erdiko zatia estalita.

Gainerakoari dagokionez, proiektu asko Aldundiaren esku uzten direla esan du, hain zuzen ere horixe baita partida ekonomikoa. Beraz, Udalak inplikazio handiagoa behar duela berresten dute, adibidez, hiribarruko mikrobussen sarearen azterketari buruzko gaian, haien ustez onartezina baita Leioak gaur egunean barruko mugikortasunen duen eskasari eustea, eta tranbiaren proiektua modu eraginkorrean baliatu behar da.

EAJK udal aldizkariaren inguruan egin duen balorazio positiboarekin bat ez datozela adierazi du, jakina, haien ustetan askoz gehiago hobetu baitaiteke eta aldizkariaren eskasiaz nahikoa nabariak baitira, oposizioko taldeek parte hartzeko batere lekurik ez izateaz gain.

Era berean, Sakoneta Polikiroldegian pertsonala gehitzea beharrezkoa ez dela esan izanak harritu egin duela adierazi du, noiz eta egungo ordutegia nahikoa ez den argi eta garbi, eta gainera ez ditu betetzen udalerriak asteburuetan eta jai egunetan dituen beharrezkoak.

Gainerako proiektuei eta azterketei dagokienez, erdizka utzi da agerian azterketa asko edo proposamen asko planteatzen dituztela, baina, tira, positiboak direla eta hiriak ilusioa pizten duten proiektuak behar dituela uste dute. Adibidez, Planetarioaren gaia, jakina, eztabaidagarria da eta beste talde batzuek beharrezkotzat har dezakete edo ez, baina beharrezkoa dela pentsatzen dute, bai planetarioa, bai ingurumeneko gela, udalerriko hezkuntza baliabide gisa, bereziki hezkuntzaren aldetik eskaintza zabala dagoen ingurunean. Eta azokaren kokapenari dagokionez, gainetik gehiegi pasatu dela uste du, proiektu egingarria dela uste baitute. Adibide bat bakarrik jartzearen, hor dugu Durangon oraintsu egin den azokaren kokagune berria, Leioan dagoen biztanle kopuru antzekoa duen herrian hain zuzen ere. Landakon inauguratu den instalazioak, jakina, Durangon ez ezik, Durangalde guztian ematen du zerbitzua, baina haien ustetan Leioarentzako antzeko proiektua udalerriko bizigarri ekonomikoa eta soziala izan daiteke. Hori dela-eta, partidari eutsiko diote, gainerako aldaketa-proposamenen moduan.

Azkenik esan du Eusko Alderdi Jeltzalearen ezezko botoa deitoratzen dutela, aldaketa-proposamenekin bat ez etortzea ulertzen badute ere.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza alkate-udalburu jaunak honakoa esan du: Gauza garrantzitsuenetatik hiru kontu esatea gustatuko litzaiokeela adierazi du:

Lehenengo eta behin, PPK aurreikusi dituen sarrerak errealitatetik kanpora daude, sarrera handiegien aurreikuspenak egin dituztelako. Izan ere, iaz antzeko zerbait proposatu zuten eta astakeria handia izan zen sarrerei buruz egindako haien aurreikuspena, zeren aurrekontuen betearazpenean ikusiko baita hirigintzako lizentzien eta hirigintzako konpentsazioen atalean ez direla lortu iaz proposatu ziren sarreren helburuak, aurten aurreikusi direnak baino askoz txikiagoak zirenak. Hala ere, aurten egin den aurreikuspena bete egingo dela uste du, Plan Orokorra abian jarriko baita, baina ez dira beteko PPK planteatzen dituen aurreikuspenak, gehiegizkoak dira-eta.

Bigarrenik: Leioa gauza askotan hazi egin daiteke eta kontu askotan oso ona izan, baina gauza guztietan onena ezin izan daiteke. Helburuen artean, nortasuna emango dioten helburuak aukeratu behar ditu Leioak. Bere ustez, jakina, Kultur Etxearen aldeko apustua, aurten aurrekontuaren zati handi bat daramana, lehen mailako apustu estrategikoa da. Musika eta kirola bi aukera dira, kulturarekin eta euskararekin batera; hori dela-eta, lau arlo horiekin eskaria betetzen dela uste du. Durangoko Landakori buruz, bertan liburu azoka ospatzen delako egin

dela adierazi du, eta azokaren inguruan egin dute Landakokoa, baina besteek egiten dutena kopiatzen ezin ibil gaitezke, Durangokoek ez dituztelako egiten hemen egiten diren hainbat gauza. Eta gauza bera dio Planetarioari dagokionez, Udalerri honentzat modukoa ez dela uste baitu. Izan ere, bi aukera horien arabera, datozen urteetan hiru mila edo lau mila milioi pezeta gastatu beharko dira, eta Leioak beste lehentasun batzuk ditu.

Jarraian, EAJ-PNVko bozeramaileak adierazi duen bezala, PPK planteatu dituen kontu asko Gobernu Taldeak planteatu duen aurrekontuan bildu direla esan du.

Berak adierazi duenez, herritarrei ezin esan dakizkieke ezinekoak diren gauzak, Txorierriko jendeari esan zaion moduan sarreren kontuan, zeren eta Udal hau sarreren sistema mistoak jartzea lantzen ari baita: igogailuak arrapalekin batera, e.a., zailtasun handiak baitaude bertako malda dela-eta; beraz, errealitatean dagoena esan behar zaio jendeari. Gauza bera Eroskitik Artazara doan Avanzada errepidea lur azpian sartzeko PPK planteatzen duenari dagokionez ere, herritarrek barre egiteko moduko proposamena baita; dena dela, ez zaio uko egiten errepide hori hirigunean estaltzeko ahalegina egiteari. Izan ere, egingarria da inbertsioaren aldetik.

Hirugarrenik: PPK urteroko proposamen berdina egiten du eta legitimitate osoa dauka, baina iaz ere esan zien Merkatarien Elkartearekin (halakoa baita PERCO) koordinatuta egin zen merkataritzari buruzko azterketan, merkataritza berritzeko ildo estrategikoak zehaztu direla eta onetsi berri direla; hori dela-eta, ez da azterketa gehiagorik behar, baizik eta honako hauetan ematen zaien laguntza ematen jarraitzea: elkarrekin biltzea, elkarrekin jardueretan biltzea, e.a.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa esan du:

Aldaketa-proposamen osoa entzun ondoren, EAJ-PNVk Alderdi Sozialistaren aldaketa-proposamen partzialen kontrako botoa emango duela adierazi du, eta gainera, logikoa denez, Alderdi Sozialistaren aldaketa-proposamen osoaren kontrako botoa ere bai. Eta gero, EAJ-PNVko bozeramaileari entzun dio PSOEk abstentzioa emateko ahaleginak egingo dituela. Ez daki hitz egin edo ez.

Jarraian, aurkeztu dituen aldaketa-proposamen partzialak beti aurkeztu izan dituztenen ildo beretik doazela esan du. Gainera, planteatu den aldaketa-proposamen osoaren ildotik doa, eta ondoren gastua handitzea dakarten zuzenketak aztertuko ditu banan-banan, sarreren inguruko azterketa lehenago jorratu baitute.

Lehenengo zuzenketa etxeko laguntzari buruzko da, zeren eta, aldaketa-proposamen osoa landu denean azaldu duenez, Gobernu Taldeak aurre-proiektuan eman duen aurrekontuko partidak KPIren igoera estaltzeko modua ematen baitu, baita etxeko laguntza zerbitzuari buruzko laudoa betetzeko ere, eta beharbada gehiagorako ere eman dezake, baina ez du uste urte osoan izango diren beharrezkoak betetzeko beste geldituko denik. Izan ere, datuak oker ez badaude, aurten 12 pertsona izan dira batez beste itxaron-zerrendan, beste bat noiz hilko zain, eta egoera hori serioa ez dela irizten dio.

Jubilatuena etxeko laguntzari emateari dagokionez, etxeotan dagoen dinamizazioa nahikoa ez dela uste dute, 6 ordu bakarrik baitaude astean dinamizazio lanak egiteko. Beraz, gaia berriz planteatu beharko litzatekeela uste dute.

Genero-indarkeriaren kontrako borrokaren planari dagokionez, plan hori ezartzea ezinbestekoa dela uste dute eta, EAJ-PNVko bozeramaileak hala egingo duela esan arren, beste askotan ere gauza bera esan izan da eta ez da egin. Gainera, eskaera hori talde guztiek aho batez onetsitako mozioei erantzuna emateko dela adierazi du.

Gizarte Ongizate Sailean sortu berri diren argitalpenei buruzko zuzenketa aipatu du. Izan ere, lehen askoz aurrekontu txikiago zegoenean eta Gobernu Taldean sozialistak ere zegoenean, Gizarte Ongizate Sailean argitalpen jakin batzuen lana zegoen. Lan hori

interesgarria zela uste dute baina ez da egiten. Beraz, berriz ere egin beharko litzatekeela pentsatzen dute.

Berdintasunari buruzko planaren dirulaguntzari dagokionez, aurrekontuan planteatzen diren kopuruekin oso zaila irizten diote berdintasunari buruzko plan serioa egiteari.

Larrialdietako pisuei dagokionez, zuzenketak dagoeneko zentzurik ez duela esan daiteke, alkate jaunak egin daitekeela bereganatu duelako.

Era berean, eskoletan jolas egiteko ekintza berriak planteatu dituzte, partida handiagoa izan behar dela uste dutelako.

Sortu berri den beste partida bat, hezkuntzako teknikariarena: hezkuntza sailak lan hori koordinatzeko norbait behar dela esan izan du urteetan, eta horrexegatik, 30.000 €ko partida planteatzen dute.

EHUrekin sinatutako hitzarmenaren partida handitu dute, orain dela urte askotatik hona azaldu izan dena.

Tokiko Agenda 21 delakoari buruzko zuzenketaren inguruko azalpena aldaketa-proposamen osoan eman du, barregarri iruditzen zaielako partida horrek duen esleipena.

Lamiako-Txorierrri-San Bartolomeko administrazio bulegoei dagokienez, hauteskundeetan egindako eskaintza dela esan du, eta horrexegatik planteatu dute. Pinuetan dagoena auzune horietan ezarri behar dela uste du, ona delako eta logikoa delako, Leioa udalerrria hain deszentralizatuta dagoela kontuan izanda.

Leioako lur azpiko errepide nagusia ixtearen eta ingurumen-eraginaren azterketari dagokionez, Gobernu Taldeak dio errepidea guztiz ezin itxi daitekeela, baina gogoratu nahi izan du Alderdi Sozialista izan zela lur azpiko errepide nagusia gaur egunean dagoen moduan sortzearen kontra agertu zen bakarra, orain dela urte asko, eta horri dagokionez uste du antza denez errepidea osorik estaltzeko alkate sozialista behar dela, oso garrantzitsua dela uste baitute. Izan ere, herria bi zatitan banatzen du.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa esan du:

PSE-EE-PSOeko bozeramaileari erantzun dio, emango dion azalpenarekin aurrekontuari buruzko botaketan abstenitzen ez bada, “beldur eszenikoa” dagoela pentsatu behar duela, zeren eta lehenengotan aldaketa-proposamen osoa aurkeztu baitute eta gero aldaketa-proposamen partzialak, printzipioz aurrekontua falta duen asmo handizale hori zuzendu beharko dutenak. Izan ere, horiek dira oposizioak dituen bi bideak: aldaketa-proposamen osoaren inguruan ezetzak irteten badu, borondate hori aldaketa-proposamen bakoitzean zuzentzea da kontua.

Aldaketa-proposamen partzialei dagokienez, partidaren batzuetan kontrako jarrerarik ezin ager dezaketela onartzen dutela esan du, zehaztu gabekoen kasuan esate baterako, funtsean RPT delakorentzat; beste partida batzuetan kontra ager daitezke, baina kontua da partidetan lehentasuna jarri behar dela, baina berak ezin du lehentasunik jarri nahiz eta akordioak egiteko nahikoa denbora izan, zeren eta aurrekontuan tokia duten azterketei buruzko partida osoak baitaude. Baina partidaren PSOEn planteamendu guztiak eta PPK eta EBK planteatzen dituztenak sartu nahi badira, ezinezkoa da, partida horrek ez duelako horrenbestera ematen.

Era berean, 650.000 €ko gastu globaleko partida garrantzitsu bat dagoela esan du, eta horietatik 100.000 € deskontatu behar dira Pinuetako Iberdrolaren azpi-estazioa lekuz aldatzeko azterketa egiteko. Beraz, 550.000 € geratuko lirateke eta, jakina, alkateak partida horretan erabiltzeko kopuru hori du, egon dauden partidak indartu ahal izateko. Hortaz, Gizarte Ongizatearen Batzordean landuko dute Alderdi Sozialistak Genero Indarkeriari buruzko Planaren inguruan egin duen proposamena.

Alderdi Sozialistak proposatzen duen 790.000 €ko gastuko atalari dagokionez, 100.000 € Leioako Avanzada deritzon errepidearen ingurumen-eraginaren eta errepide hori

ixtearen azterketa egiteko proposatzen dute, eta lehenago esan duenez, Aldundiak ordaintzea espero du, ez baitu uste lur azpian sartuko dutenik Avanzada errepidea bi kilometrotan. Hala ere, hirigunean lur azpian sartuko dela uste du, eta seguru asko, hasieran pentsatzen zuten moduan, Europako araudia aldatu delako, orain dela hamar urte egin zitekeena orain ezin egin daitekeelako eta oso kostu altua dakarrelako, eta are gehiago, Avanzadako ibilgailu guztiak Leioako tokiko bidearen gainera atera behar direlako obrek dirauten bitartean bi urte eta erdian. Beraz, nork jasango ditu 90.000 ibilgailu Leioako tokiko bidearen gainera bi urte eta erdian? Egin daiteke, oso gauza handizalea egin daiteke, Leioa uriko arazoari irtenbidea emango diona, baita zarataren eta bazterrak bateratzeko arazoari ere; egin daitekeela uste du, eta gainera hori egiteko erronka dute, are gehiago herrian tranbia jartzekotan direnean. Baina bere ustez ez da beharrezkoa 100.000 € gehiago izatea, Aldundiak finantzatzeko delako azterketa.

Pinuetako Plan Bereziaren inguruko partidaren 125.000 € gehiago izatea planteatu da aldaketa-proposamenen, eta berak adierazi duenez, hasieran aurreikusitako 800.000 €ko kopurutik erdia betearazi da eta beste erdia betearazteko Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jasotzea espero da. Beraz, aurreikusitako 125.000 €ko partidarekin nahikoa da.

Tokiko Agenda 21 Planari dagokionez, 90.000 €ko igoera planteatzen da, eta berak esan duenez, plan horrek hurrenkera-partida bat du. Hurrenkera-partidak kopuru jakin batekin irekitzen dira eta gero igo egiten da kopurua beharrezkoa den heinean, gainera kontuan izan behar da alkate jaunak eman duen azalpena: Tokiko Agenda 21 Planak partida asko dituela. Horri buruz esan du Tokiko Agenda 21 delakoarekin hasten diren udalerrri guztiek egiten duten lehenengo gauza aholkularitza kontratatzea da, egin beharreko programei buruzko azterketa egiteko eta ondoren partida egokia sortzen da programok burutu ahal izateko.

Lamiakoko administrazio bulegoari dagokionez, Pinuetako Plan Bereziak aurrera egiten badu, Ibaiondo, Pinueta eta Lamiakoko arazoei irtenbidea emateko administrazio bulego erreala izan daitekeela uste du. Bulego hori desjabetuko den txokolate-etxetxoan kokatzea proposatu du. Bere ustez, Txorierrri eta San Bartolomeko administrazio bulegoak ez dira beharrezkoak, biztanle kopurua dela-eta. Izan ere, bulegoa jartzeak teknikari bat edo gehiago kontratatzea dakar biztanle gutxi bizi diren tokietan, eta hain biztanle gutxi izanda ez da justifikatzen administrazio bulego bat jartzea.

Guztira 46 milioi pezetako gainerako diru-atalak urtean planteatu daitezkeen azterketei eta dirulaguntzei buruzkoa dira. Izan ere, badago aipatutako gai horri buruzko diru-atala, baina ados jartzea falta da.

Azkenik esan du 4.000 milioi pezetako aurrekontuan Alderdi Sozialistaren zuzenketak 46 milioi pezetakoak direla. Hortaz, abstenitu egin daitezkeela onartzeko modua ematen ez badu kopuru horrek, *beldur eszenikoa* dela pentsatu behar du berak.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa esan du:

Alderdi Sozialistak planteatu dituen aldaketa-proposamenen inguruan duen iritzia azaldu nahi duela esan du. Horri dagokionez, planteatzen dituzten arlo desberdinak, printzipioz, egokiak direla irizten dietela esan du, aurrekontua hobetu dezaketelako, salbu eta administrazio bulegoari buruzkoa. Izan ere, kontua ez da administrazio bulegoak auzuneetan egotearen kontra daudela, baizik eta hitz egin behar litzatekeela zein administrazio bulego diren beharrezkoenak. Haien ustez, orain momentuan, zerbitzuen inguruan Udalak izan behar duen lehentasuna Udaletxean dagoen zerbitzua hobetzea baita; Udalak ematen duen zerbitzua hobetu beharra dago, abian jarri den azterketaren bidez eta etorkizunean erabakiko diren ekintzen bidez, zerbitzua handituta edo Udaletxea beste toki batean kokatuta. Beraz, Udalaren bulego nagusiak erabat operatibo jarrita, orduan hitz egiten has gaitezke auzuneetan administrazio bulegoak jartzearen inguruan, hain ustez lehentasuna zerbitzu zentral edo nagusia hobetzea izan behar litzatekeelako.

Kontu horretan izan ezik, gainerakoetan ez dute eragozpenik aldeko botoa emateko, baina haien ustez, beren aldaketa-proposamenekin bezala, baterako botaketa egingo da aldaketa-proposamen guztien inguruan. Hori dela-eta, abstentzioa bozkatuko dutela esan du, eman dituen arrazoiak direla medio.

PSE-EE-PSOE Susana González Rómulo andreak honakoa esan du:

EAJ-PNVko bozeramaileak esan dituenak ahotan hartuta, hain zuzen ere Leioako Alderdi Sozialistak *beldur eszenikoa* duela esan dituenak, Susana Gonzalezek adierazi du ea nola bururatzen zaion horrelakorik esatea ETAk Fernando Buesa hil eta hurrengo egunean aurrekontuen inguruko ituna egiten duen alderdi bati eta herria zatitzen duen alderdi bati, hain zuzen ere orain dela hamar minutu Gobernu Taldeari aurrekontuak kentzeko esan duen alderdiari eta hilabete barru baterako aurrekontua egingo dutela esan duen alderdiari. Gainera, orain dela minutu batzuk esan du ez duela behar ez Batasunaren ez inoren argudiorik, Gobernu Taldearen iritzi desberdina badute ere, askotan iritziak bateratzeko gai izan baitira. Bere ustez, beldur eszenikoa izan duena aurrekontuen aurre-proiektua hitzartzera deitu ez duena delako.

PSE-EE-PSOEren aldaketa-proposamenetan Udalaren aurrekontu osoarekiko 46 milioi pezetako aldea planteatzearen inguruan EAJ-PNVko bozeramaileak dionari dagokionez, zortziehun mila euroko diru-kopuruaz ari direla esan du, baita larrialdiko etxebizitzan gaia aurrera ateratzea soilik onartzeaz ere, zeren eta gainerako kontuetan Aldundiaren finantzabideekin egingo dela esaten ari baita edo aurrekontuak aurrera egin ahal akordioak hartuko baitituzte, beharrezkotzat jotzen diren azterketak egin ahal izateko. Gainera, PSE-EE-PSOEren abstentzioa eskatzen du, zeren, beldur eszenikoa dela uste ez badu, beldur eszenikoa berak duela uste baitu.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa esan du:

Horren inguruan esan du beldur eszenikoa izateko arrazoi gutxien duena bera dela, eta horri buruz esan du Alderdi Sozialistak oso emaitza onak izan zituela esan zuela, baina berak dio EAJk hobeak izan zituela. Beraz, Alderdi Sozialistak beldur eszenikoa duela uste du benetan, eta gainera hala izateko arrazoiak badituela ere bai, zeren eta, Alderdi Sozialistak hauteskundeetan izan dituen emaitzak aztertzen hasten bada, botoen maila absolutua 1979 eta 1980 urteen arteko muga berean baitago.

Berak adierazi duenez, nahikoa arrazoi ditu planteatu zaizkion proposamenekin bat datorrela agertzeko, baina, egia esan, beharrezko gestioak egiten ari da, Udalak barik beste erakunde batek finantza dezakeen ala ez ikusteko.

Azkenik esan du abstentzioa izateko arrazoiak ulertuko lukeela, bere ustez abstentzioa izateko nahikoa arrazoi direlako, eta ez boto horien inguruko gehiengo aritmetikoa behar dutelako. Hori dela-eta, gutxienez abstentzioa izan daitekeela uste du, baina kontrako botoa ematea ere ulertuko luke.

PSE-EE-PSOEko Susana González Rómulo andreak honakoa esan du:

Aurretik esandakoari eusten diola adierazi du, zeren eta EAJ-PNVko bozeramaileak egoera politikoaz diharduenean, haren ustez, oraingoa baino askoz egoera politiko txarragoak izan baitira. Izan ere, ez diote baiezko botorik emango aurrekontuari, baizik eta baterako aurrekontu bat aurkeztu dute.

Azkenik esan du beldur eszenikorik ez duela izan eta sekula ez duela izan horrelakorik Leioan.

Eztabaidaren ondoren, Alderdi Sozialistak proposatutako zatizko zuzenketak bozkatu dira eta honako hau izan da emaitza:

PSE-EE-PSOE TALDEAK PROPOSATUTAKO 24 ZUZENKETEN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan **zuzenketen aurkako hamaika boto** izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; **aldeko botoak, berriz, lau** izan dira, PSE-EE-PSOEko lau zinegotzianak. **Abstentzioak** sei izan dira, IU-EBko bi zinegotzianak eta PPko lau zinegotzianak. Ondorioz, PSE-EE-PSOE udal taldeak 2004. urterako aurrekontu orokor bateraturako proposatu dituen 24 zuzenketak **baztertu egin ditu** osoko bilkurak.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa esan du:

Aurrekontuaren puntu jakin bati buruzko proposamena egitea gustatuko litzaiokeela esan du. Berak adierazi duenez, Ogasun Batzordean zehazki, kargu politiko liberatuen ordainsarien zehaztasunari buruzko galdera egin zuten, %56ko igoeraren gaineko azalpena zehatza eskatuta. Horri dagokionez, Tokiko Karguen Estatutuan ezarritakoa bete dela esan zitzaion; izan ere, Estatutu horretan alkatearen eta alkateordeen ordainsarien gorabeherak zehazki aztertzen dira. Aurreko urteetako aurrekontuak berrikusi ondoren, 2002ko aurrekontuan aldaketa-proposamen bat onetsi zen Eusko Alderdi Jeltzalearen, Alderdi Sozialistaren eta Ezker Batuaren proposamenaren inguruan, zertarako-eta beren beregi eta bereiztuta agertzeko kargu politiko liberatuen urteko ordainsariak eta gizarte segurantza. Aldaketa-proposamen hori ez zen burutu, aurtengo aurrekontuan behintzat ez, ez baitira beren beregi agertzen kargu politiko liberatuen ordainsariak. Hori dela-eta, eskaera bat egiten da, pertsonalari buruzko eranskinean ordainsariok jasota uzteko, Udal honek haren ustez izan behar duen gardentasunari begira.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza alkate-udalburu jaunak honakoa esan du: Horren inguruan eragozpenik ez duela.

Ondoren, azken botaketa bat egingo dela esan du Batzordearen diktamena berresteko, IU-EB taldeak Pinuetako Iberdrolaren azpi-estazioa lekuz aldatzeko azterketari buruz aurkeztutako bigarren zuzenketa sartuta.

OGASUN ETA KONTU BEREZIEI INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENAREN BOZKETA (IU-EB TALDEAK PROPOSATU DUEN 2. ZUZENKETA GEHITUKO DA) ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hamaika boto izan dira, EAJ-PNVko hamar ordezkariak eta EAko zinegotziarena; aurkako botoak, berriz, zortzi izan dira, PSE-EE-PSOEko lau zinegotzianak eta PPko lau ordezkariak, eta abstentzioak bi izan dira, IU-EBko bi ordezkariak. Ondorioz, osoko bilkurak 2004. urterako aurrekontu orokor bateratua **onetsi egin du, gehiengoz**, Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordearen irizpenean agertzen den bezala; gainera IU-EB taldeak proposatu duen bigarren zuzenketa, Pinuetako Iberdrola azpi-estazioa tokiz aldatzeari buruzkoa, gehitu egingo da.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

2.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA UDALAREN GOBERNU BATZORDEAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2003-12-20tik 2004-01-16ra: Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak

onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientearen agertzen diren gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafearen aipaturako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak eta Udalaren Gobernuaren Batzordeak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

3.- PRESAZKO MOZIOAK

Inolako moziorik aurkeztu ez dela adierazi da.

4.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza alkate-udalburu jaunak honakoa esan du:

Beraz, adierazi du, une honetan, Eusko Jaurlaritzak eta EUDELek baterako eskema bat lantzen dihardutela, oro har terrorismoaren biktimen aldeko eta biktimak gogoratzeko egun bat antolatzeke; ekainaren 7an izan daitekeela esan dute. Horri dagokionez, gai zaila dela esan du, eta ahalik eta adostasunik handiena lortzea gustatuko litzaioke.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa esan du:

Horri dagokionez, aurreko gertaera horren 25. urteurrena betetzen dela esan du, eta haien ustetan, lehenago egindako jarduerak egokia izan zen. Haien ustez, posiblea da esatea EUDELen adierazpena sinatu zuen taldearen bitartez gai honen inguruan Leioako Udalaren egungo indar politikoak batuta daudela. Hortaz, interesgarria izango litzateke Leioako Udalak bere jarrera izatea, Eusko Jaurlaritzak abiarazia duen kanpainarekin guztiz bat datozeala alde batera utzita, baina gertaera jakin batzuek, nolabait, ez dute plaka handi bat behar zenbait kasutan, gertaera jakin batzuen inguruko plaka baizik.

Eta gaueko hamarrak eta berrogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O E
ALKATEA,

IDAZKARIA,